

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2015eko Plangintza





AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA	
1.1. ETXEBIZITZA	
1.1.1. Emantzipa...ZER?	4
1.2. ENPLEGUA	
1.2.1. Gazteak eta Enplegua lan taldea	5
1.2.2. Prekarietatearen aurkako prebentzioa	7
1.2.3. SOSgazteak II. Itzultze programak eta eskubideen galera	8
1.3. OROKORRA	
1.3.1. Posizionamendu publikoak: lan istripuak eta gaztetxeak	9
1.3.2. Gazte-Label: gazteria politika publikoen kalitate zigilua	10
1.3.3. Eguneroko lana	11
2. HEZKUNTZA	
2.1. HEZKUNTZA EZ FORMALA	
2.1.1. Astialdi Foroen Koordinazioa	13
2.1.2. Astialdiko ikastaroen kanpaina	14
2.1.3. Udako kanpaina	15
2.1.4. Astialdi Foroko webgunea (www.astialdiforoa.org)	16
2.1.5. Astialdiko eskolen etorkizuna	16
2.1.6. Administrazioekin koordinatu	17
2.2. HEZKUNTZA FORMALA	
2.2.1. Hezkuntza Foroa	18
2.2.2. RECacciona bideo lehiaketa: gazteak eta hezkuntza	19
2.2.2. Euskadiko Eskola Kontseilua	20
2.3. EGUNEROKOTASUNA	21
3. PARTE HARTZEA	
3.1. Euskal gazteen behatokiarekin elkarlana	22
3.1.1. Ikerketa kuantitatiboa	22
3.1.2. Prestakuntza tailerrak	23
3.2. Gazteolinpiadak	24
3.3. Gazteok eta parte-hartze politikoa	26
3.4. Gazte eragileekin zuzeneko harremana	27
3.4.1. Material eta gelen lagapena	27
3.4.2. Gazte eragileei aholkularitza eta parte-hartzearen sustapena	28
3.5. Erakunde publikoekin elkarlana	29
3.6. Egunerokotasuna	30
4. BAKE ETA BIZIKIDETZA	
4.1. Bake-arte tailerrak	31



4.2. Formakuntza saioak eta Bake ibilbideak herrietan	33
4.3. Gazte bakegintzaren dokumentala	34
4.4. Erreferentzia-funtsa gauzatu	35
4.5. Bakeizketak	36
4.6. Nazioarteko egunak	37
4.7. Bakea unibertsitateetan	38
4.8. Gazte-bake manifestua	39
4.9. Egunerokotasuna eta planifikatu gabeko bake ekintzak	40.
5. BERDINTASUNA	
5.1. Emakumea eta generoa	42
5.2. LGTB	43
5.3. Egunerokotasuna	45
6. KOMUNIKAZIOA	
6.1. RECacciona bideo lehiaketa “Gazteak & Hezkuntza”	47
6.2. Twitter lehiaketa	48
6.3. Piztu! Buletina	49
6.4. Berriz Berri posterra	51
6.5. www.egk.org webgunea: kudeaketa eta berritzea	52
6.6. Sare sozialen kudeaketa	54
6.7. Komunikabideekin harremanak eta kanpo komunikazioa	55
6.8. Barne komunikazioaren kudeaketa	56
6.9. Beste lan arloekin koordinatzen diren proiektuak	58
7. PRESIDENTZIA	
7.1. Batzorde Iraunkorra	60
7.2. Lantalde Teknikoaren koordinaketa	61
7.3. Batzorde ekonomikoa	62
7.4. EGK-ko Batzar Orokorra	64
7.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA	65
7.5.1. Eusko Jaurlaritza	65
7.5.2. Aldundiak	66
7.5.3. Eusko Legebiltzarra	67
7.5.4. Batzar Nagusiak	68
7.5.5. Alderdi Politikoak	69
7.5.6. Udalak	70
7.5.7. Beste Erakundeak	71
7.5.8. Irudi Publikoa	72
8. ARLO EKONOMIKOA	
8.1. 2015 urteko aurrekontuaren inguruko azalpenak	74
8.2. 2015 urteko EGK-ko aurrekontua	76



SARRERA

Dokumentu honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2015 urtean aurrera eramango dituen ekimenen berri ematen da. Kontseiluaren egoera egonkortzen jarraitu da eta 2013ko batzarrean erabakitako lan arloak mantendu ahal izan dira: enplegua, etxebizitza, hezkuntza, parte hartzea eta komunikazioa. Horiez gain, 2014. urtean beste hauek ere berreskuratu dira: Bakea eta Bizikidetzak, eta Berdintasuna, baina azken hau 2015eko hilabete batzuetan soilik, Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren laguntza baten bitartez izan baita, eta EGK-k ez dauka mantentzeko diru iturri nahikorik.

Plangintza honen diseinurako, aurreko urteko ebaluaketa eta ondorioak kontutan hartu dira, hartara, egindako lanari jarraipena emateko. 2014ean bezala, hilabeteko epea utzi da EGKko elkarteek ekarpenak egiteko. Eta azkenik, Twitterreko lehiaketa bat antolatu da helburu berdinarekin. Hemendik 34 proposamen lortu dira, horietako batzuk plangintzan barneratu direlarik.

Aipatutako lan arloen 2015eko plangintza, Batzorde Iraunkorra eta Batzorde Teknikoaren artean adostu da Batzarrerara aurkeztu ahal izateko. Batzorde Iraunkorra berri behar denez, aurten ez da plangintzarik egin.

Arloen plangintza garatuan ikus daitekeen moduan, 2014ean harrera ona izan zuten egitasmo batzuk mantendu dira 2015erako: #SOSgazte edo Bake Ibilbideak besteak beste. Eta proiektu berriak proposatu dira lan arlo guztietan, gazteen parte hartzea eta hartu emana bilatzeko asmoz. EGK gazte eragile eta bitartekari erreferente bihurtzen ari da instituzio ezberdinen aurrean, baina hau Kontseiluaren bi oinarrizko zutabeetako bat baino ez da. Beste zutabea gazteak dira, eta horretan batez ere ahaleginak egiten jarraituko dugu, hauen ahotsa, interes eta beharrak jasotzeko asmoz, horretarako ezagutzera ematen garelarik.



1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA

Gazteon geroz eta beranduago eskuratzen dugu autonomia pertsonal zein kolektiboa, lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuak eta etxebizitza eskubidearen ukazioak bultzatuta. Independentzia materialaren gaineko haustura hau, bizitza proiektu propioa garatzeko baliabide ekonomikoen falta dakar, eta gazteon hiritartasuna guztiz ahultzen du. Gehienetan familiarekiko dependentzia ekonomikoa urteetan zehar luzatu eta jendarte-komunitatean jokatzeko dugun rola erabat mugatzen da.

Enplegu eta etxebizitza arloak, gazteon errealitate honi erantzuten dioten bi elementu garrantzitsu biltzen ditu bere baitan. Landu ezin daitezkeen beste hainbeste elementurekin batera, gazteon independentzia materialean, askatasunean eta bizitza kalitatean berebiziko garrantzia duten alorrak dira.

1.1 ETXEBIZITZA

1.1.1 Emantzipa...ZER?

deskribapena

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzeak edo galtzeak suposatzen duen arazoa orokortu da, gazteriaz gain beste kolektibo askotara hedatuz. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahastuz.

Hala ere, gazteriaren egoera nabarmenki txarra da orokortasunen aurrean. Alde batetik, %20ko inguruko emantzipazio tasa urriak aurkezten dituelako, eta bestetik, pairatzen dituen lan baldintzak kontutan harturik, egoerak ez duelako hobetzeko itxurarik. Horregatik guztiagatik, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza lan talde bat berreskuratzea eta, enplegu lan taldearekin egin izan den bezala, administrazioarekiko lan zuzena egitea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helaraziz.

helburuak

Helburu orokorra

Etxebizitza eskubide subjektiboa defendatu, herri-hiritar denentzat, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten duten gazteentzat.

Helburu zehatzak

- Gazteak eta gazte elkarteak etxebizitza arloaren inguruan batuko dituen eztabaida gune bat sortu eta egonkortu.
- Administrazio/instituzio ezberdinek martxan jarritako etxebizitza politika publikoak hausnartu eta erakundearen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Eztabaida gunean sortutako ekimenei jarraipena eman eta honen funtzionamendua kudeatu eta bultzatu.



ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Lan taldearen lehen deialdia egin, aurreko lantaldeko kideak kontutan harturik.
- Lan taldeari jarraipena egin.
- Etxebizitza arloko politiken arduradunekin bildu eta gazteen iritzia helarazi.
- Arautegia, politika publikoak eta ekimenen hausnarketa egin.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGKko gazte elkarteak eta EGKkoak ez diren elkarteetako gazteak zein gazte ez elkartuak.
- Administrazioa eta instituzioak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lehen deialdiaren arrakasta: etorritako gazteen kopurua, landutako ideien sakontasuna, jarraikortasuna...
- Lantaldearen egonkortasuna.
- Administrazio eta kargu politikoen erantzuna eta hauen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketan aurrean: eskatutako bilerak onartzen diren, eskaerak entzuten diren, politika publikoetan barneratzen diren, eta abar.

1.2 ENPLEGUA

1.2.1 Gazteak eta enplegua Lan Taldea

deskribapena

Luze da EGKtik gazteriaren prekaritatea salatzen dela, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoaren ondorioz, baizik eta are lehenagotik ere pairatutako baldintzengatik ere. Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo du gazteria eta bideratzen ari diren hainbat erreformek ez dute prekaritatea denboran eta sakontasunean indartuko baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da gazteek, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun bat emateko lan talde sendo bat izatea.

Azken urteetan Gazteria eta Enplegua lan taldea jende berriz indartzen eta egonkortzen joan da. Diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean



garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Aurten, ildo bera jarraitu nahi da, lan taldearen ekimenekin jarraituz.

helburuak

Helburu orokorra

Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren politika publikoak hausnartu, administrazioari helarazi eta, eskubide eta prekarizazioaren aurrean gazteen egoera aztertu eta eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu.

Helburu zehatzak

- EGK barruko enplegu lan taldea mantendu eta gazte gehiagori zabaldu.
- Gazteria eta enplegu politiken inguruko hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteen prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz.
- Gazteriaren lan baldintzen eta hauen ondorioen salaketa publikoa egin, enplegu sistemaren arduradun direnen ardura interpelatu.
- Administrazio gazteriaren artean enplegu arloan zubi lana egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

■ Gazteen Enplegu Proposamenak garatu (aurreko urtean hasitakoak)


■ Proposamenen aurkezpena egin eta hauek zabaldu.

■ Lan osasunaren inguruko hausnarketa berri bat bideratu.

■ Eusko Jaurlaritzako Enplegu Zuzendaritzarekin eta enplegu arloetako beste arduradunekin bilerak.

■ Administrazio ezberdinen enplegu planen hausnarketa bideratu eta Lan Taldearen ekimenei jarraipena eman.

Kronograma



hartzaileak

- Gazteria eta enplegua lan taldea (EGKko elkarteetako kideak, beste elkarteetako gazteak eta elkartu gabeko gazteak)
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte eta gazte taldeak.
- Administrazio/instituzio ezberdinak eta bereziki enplegu eta gazteria arloko arduradun politikoak.
- Jendarte oro har eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak



- Lan taldearen funtzionamendua eta gazteen parte hartzea: deialdien arrakasta, hausnarketen sakontasuna, kideen proaktibitatea eta proposatutako proiektuak.
- Egindako hausnarketen sakontasuna eta landutako ekimenen bideratzea.
- Administrazio eta kargu politikoen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean: eskatutako bilerak onartzen dituzten, eskaerak entzuten dituzten, hauek politika publikoetan barneratzen dituzten, eta abar.

1.2.2 Prekarietatearen aurkako prebentzioa

deskribapena

Azken hamarkadetan, eta bereziki azken urteotan gazteen enplegua sustatzeko aitzakiapean martxan jarri diren neurri eta lege erreformek gazteriaren lan prekarietatea sustatu dute hein handi batean. Alabaina, administrazioa ez da askotan jabetzen haien ekimenekin bultzatzen duten egoeraz eta beste askotan lanaren kantitatea kalitatearen aurretik ipintzen dute, prekarietatea bigarren mailako arazo gisa ikusiz.

Horregatik, administrazioari zuzendutako ekintzak bideratu beharra dago. Ekintza hauek gazteriaren enplegua sustatzeko neurrien arduradun eta politikariei zuzenduak izan beharko lukete bereziki. Azken finean, arduradunek gazteen prekarietatearen inguruan ezagutza eta sentsibilizazio handiagoa izanez gero, honek haien eguneroko jardueran eragina izango luke, gazteen prekarizazioa murrizten lagunduko lukeena.

helburuak

Helburu orokorra

Gazteen lan prekarietatearen inguruan gizartea eta eskumenak dituzten politikari eta teknikariak sentsibilizatzea eta prekarietate hau sustatzen duten ekintzak ekiditen lagundu.

Helburu zehatzak

- Lanbideko orientatzaileei zuzenduriko ikastaroak prestatu eta eskaini (gazteriaren enplegua eta prekarietatearen ingurukoak).
- 2014an garatutako kanpaina gauzatu eta zabaldu (www.prekarioka.org)

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Prekarioka.org aurkeztu eta zabaldu.
- Iritziak jaso eta webgunea kudeatu. Ondorioak atera.
- Lanbideri eskaintzeko ikastaroak prestatu.
- Ikastaroak eman.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■	■										
		■	■	■	■						
			■	■	■						
							■	■	■	■	■



hartzaileak

- Enplegu eta gazteria arloetako politikari eta teknikariak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak, gazte eragileak eta gazteak.
- Gizartea oro har eta gazteria bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bideratutako kanpainak jasotako erantzuna, gazte, politikari eta komunikabideen artean.
- Formazio saioen arrakasta (zenbat egin diren, kalitatea...)
- Politikari eta administrazioari interpelazioak emandako fruituak: hauen erantzuna, martxan jartzen diren neurri berrietan izandako eragina...

1.2.3 SOSgazteak II. Itzultze programak eta eskubideen galera.

deskribapena

2013.urtean eta 2014.urteko lehen hiruhilekoan zehar SOSgazteak proiektua gauzatu zen, lanagatik atzerrira joandako gazteen errealitatea hausnartu zuena. Proiektu honen bukaeran argitaratu zen ondorio txostenean, besteak beste, atzerrira joandako gazteak itzultzea erabakitzen zutenean topatzen zituzten oztopoak agerian utzi ziren.

Horrela ba, eta hainbat gaztek horrela eskatuta (ikus 2015erako ideia proposamenak twitter lehiaketan) gai honekin lotutako bi gaitan hausnarketa sakonago bat garatzea erabaki da.

- 1) Itzulera programak.
- 2) Itzuleran, erroldarekin loturiko eskubideen galera.

helburuak

Helburu orokorra

Gazteen lan emigrazioa eskubide sozioekonomikoen alorretik hausnartu eta administrazioarekin lan egin hainbat puntutan egoera hobetu ahal izateko.

Helburu zehatzak

- Itzulera programak hausnartu eta proposatu. Bai atzerrian egin izan direnak eta baita hemengo administrazioek proposatutakoak, azken hauei hobekuntza proposamenak eginez.
- Itzuleran, erroldarekin loturiko eskubideen galera hausnartu eta hobekuntza proposamenak egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Informazioa jaso, hausnarketa egin, beste herrialdeetako esperientziak ezagutu...
- Administrazioarekin interpelazio lana egin.



Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK barruko elkarteak eta berezi bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Kargu politikoak eta administrazioa.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Hausnartutako informazioaren kalitatea.
- Administrazioetan eta politika publikoetan lortutako eragina.

1.3 OROKORRA

1.3.1 Posizionamendu publikoak: lan istripuak eta gaztetxeak

deskribapena

Urteak dira EGKk badituela martxan bi gairen inguruan posizionamendu publikoak egiteko protokoloak: gaztetxeen uztarazteen ostekoa eta lan istripu baten ondoriozko gazte baten heriotzaren ostekoa.

Gaztetxeak: 2012an, 31. batzar orokorrean onarturiko protokolo berrituari jarraipena emango zaio, arlo aldaketa bat proposatuz.

Lan istripuak: Lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen den bakoitzean, heriotza bera eta askotan gazteon lan-heriotzen errudun den prekarizazioa salatzeko adierazpen publikoa egitean datza protokolo hau. Batzorde iraunkor eta komunikazio teknikariarekin batera garatzen joan da proiektua azken urteotan, baina gaur egungo egoerak testuaren zenbait aldaketa eta protokoloaren eguneratzea eskatzen du, ahal izatekotan lan talde orokor baten barruan garatuta.

Horrela ba, protokoloa eguneratzen den bitartean orain arteko moduan, EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten ondorioz hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egingo da, prentsa ohar baten bitartez.

Aurreko urtean berritze proposamen bat egin zen arlo teknikitik eta enplegu lan taldeak zein batzorde teknikoak aldatu zein onartuta Batzar Orokorrera eramatea espero da.

helburuak

Helburu orokorra



Maiztasunez gertatzen diren eta gazteoi bereziki jotzen diguten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatu.

Helburu zehatzak

- Hiri, herri eta auzoetako eraikin hutsak biziberritzen dituzten gazteen autogestioan oinarritutako proiektuek gizartea eraikitzeko duten garrantzia azpimarratu eta berauetan parte hartzeari babes eman. Protokoloa komunikazio alorrera pasa.
- Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu. Protokoloa eguneratu eta batzarrean onartu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Lan istripuen ondorioko gazte heriotzen salaketa
- Lan istripuen protokolo berriaren proposamena batzorde iraunkorrean zein enplegu lan taldean hausnartu.
- Protokoloa batzarrera eraman.
- Gaztetxeen uztarazteen protokoloari jarraipena eman

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
[Green bar]											
[Green bar]											
		[Blue bar]									
[Dark blue bar]											

hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzaren jarraipena.
- Inpaktu komunikatiboa.
- Berritutako protokoloaren diskurtsoaren kalitatea eta aberastasuna eta proposamen berria batzarrak onartzea.

1.3.2 Gazte-Label: gazteria politika publikoen kalitate zigilua

deskribapena

Gazteria politikak publikoak gazteen perspektiba batetik ebaluatuko dituen sistema bat garatu nahi da. Arkitekturaren Zertifikazio energetikorako zigiluak, hezkuntzan Q kalitatea zigiluak edo janarian EuskoLabel zigiluek haien eremuetan egiten duten moduan.

helburuak

Helburu orokorra



Gazteen perspektiba batetik, gazteria politika publikoak ebaluatu eta kalifikatzeko sistema bat garatu.

Helburu zehatzak

- Ebaluaketa eta kalifikazio baldintzak era parte hartzaile batean erabaki.
- Politika publikoak ebaluatuak izateko protokoloa ezarri.
- Gazte-Labelaren erreminta, izena eta diseinu grafikoa egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Beste kalitate zigiluen informazioa bilatu eta Gazte-Labelaren zirriborro bat prestatu.
- EGKko elkarteekin batera ebaluazio kriterioak ezarri.
- EGKko elkarte eta kideen proposamenak eta kontrasteak gehitu proposamenean
- Erreminta garatzeko oinarriak ezarri, irudia eta grafika egin.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
					■	■	■	■			
					■			■			
								■	■		
									■	■	
										■	■

hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.
- Administrazio eta politikariak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Garatutako ebaluaketa eta zigilu sistemaren osotasun eta fidagarritasuna.
- Garapenean izandako parte-hartzea.
- Zigilu honen erabilgarritasuna eta erraztasuna.

1.3.3 Eguneroko lana

deskribapena

EGKn arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

helburuak

Helburu orokorra

EGKren funtzionamendua bermatu beste lan eremuekin elkarlana egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

Helburu zehatzak



- Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.
- Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.
- Gazteriaren Euskal Behatokiarekin antolatutako ikastaroa garatu.
- Langile berriaren lan deialdian lagundu eta erreleboa eman.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- █ Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.
- █ Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.
- █ Beste lan arloen lanaren kontrastea egin
- █ Gazteriaren Euskal Behatokiarekin antolatutako ikastaroa garatu.
- █ Langile berriaren lan deialdian lagundu eta erreleboa eman.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█
█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█
█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█	█
				█							
									█	█	█

hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.
- Prentsa eta administrazioa (zenbait kasuetan).

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Barne komunikazioa aproposa izatea eta kalitasteko kontrasteak egitea.
- EGKren eguneroko lana eta funtzionamendu egokia bermatzea.
- EGKren kanpo komunikazioa erraztea.



2. HEZKUNTZA

Pertsonen garapenerako ezinbestekotzat jotzen dugun osagaia dugu hezkuntza. Atal honek, bi lan-arlo barnebiltzen ditu: astialdia (hezkuntza ez-formala) eta hezkuntza formala.

Hezkuntza ez formala hezkuntza sistematik kanpo aurkitzen ditugun araututako ikaskuntza-prozesuek osatzen dute. EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunearen bitartez, Astialdi Foroaren bitartez, EGK-k Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu. Astialdi hezitzaileko elkartegintza indartu nahi da, balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak sustatuz.

Hezkuntza formalean, Unibertsitateko gazte elkartegintza eta ikasle ordezkarietako egituren bitartez ikasleen beharrak, kezkak, proposamenak... jasotzen dira. Ondoren, errealitatearen azterketarekin batera, aldarrikapenak eta hobetzeko proposamenak adosten dira elkarren arteko ekimenak gauzatu. Gazteon ahotsa entzuna izateko lanak egiten dira administrazio eta ikasleen arteko zubi lana bitartekatuz.

2.1 HEZKUNTZA EZ FORMALA

2.1.1 Astialdi Foroaren koordinazioa

deskribapena

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio – bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Lana bideratzeko, 3 Lurraldeetan banatzen da, bakoitzean foro bana dagoelarik. Denei eragiten dieten arloetarako ordea, guztiak biltzen dira.

helburuak

Helburu orokorrak

- Astialdi Foroko lan taldea koordinatzea eta sendotzea.
- Astialdiaren bisibilizazioa eta aldarrikapena.

Helburu zehatzak

- Esperientziak elkartrukitzea.
- Erakunde publikoekin bitartekaritza egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak



- 3 Astialdi Foroen batzarrak koordinatu.
- Tarteko ebaluaketak
- 2016ko plangintza zehaztu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak eta eragileak.
- Gizartea
- Instituzio-Administrazioa.
- Jendartea eta gazteria bereziki

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzak gauzatzea.
- Helburuak betetzea.

2.1.2 Astialdiko ikastaroen kanpaina**deskribapena**

Astialdiko ikastaroen eskaintzaren inguruko nondik norakoak gazteei helarazteko urtero bezala informazio kanpaina bat osatuko da. Hau www.astialdiforoa.org webgunean argitaratuko da gida interaktibo baten bitartez, bertan eskaintzen informazio espezifikoa jasotzeaz gain EAE-ko eskola bakoitzaren harremanetarako bideak eskainiko dira klik baten bitartez aurkitu daitezkeenak.

helburuak

- EAEko eskolen ikastaroen zabalpena

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

- EAE-ko ikastaroen zabalpena on-line formatuan

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- 17 urtetik gorako gazteak
- Astialdiko eskola eta eragileak.



- Administrazioak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Webguneko kontsulta kopurua ikastaroen zabalpenean zehar.

2.1.3 Udako kanpaina

deskribapena

Astaldian boluntario gazteek antolatutako udako ekintzen errekonozimendua eta zabalpena helburu duen kanpaina. Bertan Astialdi Foroetako eragileetaz gain EAE-ko edozein astialdi taldeen ekintzen zabalpena burutzen da ahalik eta gida osatuena sortzeko. Aurten lehenengo aldia izango da udako eskaintza hau www.astialdiforoa.org webgune berrian jasoko dena. On-line gidaz gain, kanpainaren nondik norakoak jasoko paperezko euskarri bate re banatuk oda. Informazio triptikoa.

helburuak

- Astialdi hezitzailea zer den ezagutzera eman
- Astialdi taldeen udako eskaintza gizarteratu

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Datuen bilketa.
- Webgunean informazioa argitaratu.
- Kanpainaren zabalpena.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EAE-ko astialdi taldeak
- Haur eta gazteen gurasoak
- Administrazioak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Udako ekintzen zenbatekoa.
- Udako kanpainaren zabalpena.
- Webgunearen bisita kopurua udako ekintzan zabalpenean zehar.



2.1.4 Astialdi Foroko webgunea

deskribapena

laz martxan jarritako www.astialdiforoa.org webguneari egonkortasuna eman. Eguneko kudeaketaz lanez arduratu eta Astialdiko ekimenen bitartez egunean izan. Astialdiarekiko interesa duten pertsonentzako erreferentziazko gune bat izatea du helburu. Egunerokotasunetik haratago, saio bereziak burutuko dira Astialdi foroa eta EGK-ko komunikazio arduradunarekin batera baliabide honen erabilera ondo zehazteko eta ekimen berritzaileak sortzeko.

helburuak

- Astialdi hezitzailea zer den ezagutzera eman
- Astialdi Foroak aurrera eramaten dituen ekimen eta hausnarketak ezagutzera eman.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Webgunearen egunoroko kudeaketa lanak.
- Kanpaina bereziak webgunean argitaratu (astialdiaren aurkezpen bideoa, udako kanpaina eta astialdiko ikastaroak).
- Webgunearen kudeaketa antolatzeko lan-saio bereziak.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EAE-ko astialdi talde eta eragileak
- Gazteak oro har
- Administrazioak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Urteko bisita kopurua.
- Webgunearen erabilgarritasuna eta egunerokotasuna.

2.1.5 Astialdiko eskolen etorkizuna

deskribapena

EAE-ko astialdi eskolek Lanbideko formakuntza zentro izateko eskaera eta prestakuntza dekretuen aldaketaren tematikak lantzeko aholkularitza eta koordinazio lanak burutuko dira



EGK-ko hezkuntza arlotik. Horretarako eskolei atal berezi bat eskainiko zaie informazioa ahalik eta eguneratuen izaten, baita dituzten kezkek argitzen saiatzen.

helburuak

- Astialdiko eskolen legediaren inguruko informazio eguneratua izatea
- Eskolak Lanbideko formakuntza zentro bilakatzen laguntzea

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Eusko Jaurlaritzarekin koordinatu
- Lanbideko teknikariarekin harremanetan egon.
- Eskolekin aholkularitza saioak burutu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■

hartzaileak

- Astialdi Foroko eskolak eta horien ordezkariak
- Eusko Jaurlaritzako gazteria teknikaria
- Lanbideko teknikaria

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ahalik eta eskola gehien formakuntza zentro bilakatzea.
- Aurrerapausoak egotea Eusko Jaurlaritza eta Lanbideren arteko negoziazio lanetan.

2.1.6 Administrazioekin koordinatu

deskribapena

Eguneroko gaiak eskatuta administrazioekin koordinazio lanak burutu: lan-saio eta bilerak, telefono deiak... Hezkuntza arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritza eta EAE-ko aldundiak izango dira hartzaileak.

helburuak

- Administrazioekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Eusko Jaurlaritza eta Aldundiekin batera koordinazio lanak burutu.

**Kronograma**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Administrazioak
- Astialdiko eragileak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Urtean zehar informazio trukaketa burutzea.
- Elkarren arteko harremanaren ondoriozko koordinazio hobetzea.

2.2 HEZKUNTZA FORMALA**2.2.1 Hezkuntza Foroa****deskribapena**

Hezkuntza formaleko arloan, EGKren diskurtsoa eta bidea osatzen lagunduko duten ikasle elkarte eta kontseiluetako ordezkariekin batera eztabaidarako gunea berreskuratu nahi da. Hauekin batera hezkuntza arloko gaiak eztabaidatu eta elkarren arteko adostasunean oinarritutako proposamenak lantzeaz gain, hezkuntza arloko proiektu bat aurrera eramateko apustua egingo da. Gaia unibertsitateko errealitatean murgilduta dauden eragileak zehaztuko dute EGKren koordinazioarekin batera.

Hezkuntza arlotik harremana eta elkarreragina sortzeaz gain, lan horrek jarraikortasun bat izatea da helburua, nahiz eta ikasle egiturak aldatu lan-taldeak aurrera jarraitzeko gaitasuna eta konpromisoa izatea.

helburuak

- Hezkuntza formaleko ikasle elkarte eta kontseiluen ordezkarien arteko eztabaida eta lan-gunea sortu
- Hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunekin harremana eta elkarlana bideratu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

- Hezkuntza Foroa koordinatu eta bertako beharrei erantzun.
- Lan-taldeak adostutako proiektua: diseinatu, koordinatu eta garatu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



hartzaileak

- Ikasle ez-elkartuak.
- Ikasle elkarteak.
- Administrazioak.
- Ikasle kontseilu edo biltzarrak.
- Unibertsitateko beste eragileak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EGKren proaktibitatea, hartutako ardurak.
- Plataformaren funtzionamendua, bilera kantitatea eta kalitatea. Beste kideen proaktibitatea.
- Proposamen eta diskurtsoen eragina (jendarte eta komunikabidetan).
- Administrazioarekin izandako bilerak.

2.2.2 RECacciona bideo lehiaketa: gazteak eta hezkuntza

deskribapena

RECacciona bideo lehiaketaren arrakasta ikusita, aurten, 2015ean, lehiaketaren hirugarren edizioa abiatuko du EGK-k. Hauxe izango da gaia: Gazteak eta Hezkuntza. Proiektu hau Komunikazio teknikariarekin elkarlanean burutuko da hezkuntza foroko eragileen proposamen eta parte hartzearekin batera, noski.

helburuak

Helburu orokorra

Euskal gazteriak hezkuntza arloan bizi dituen egoerak, arazoak eta kezak ikustarazi eta hauei aurre egiteko proposamenak gizarteratu.

Helburu zehatzak

- Hezkuntza arloan gazte eta gazte-elkarte ezberdinek dituzten egoerak ezagutu, ikuspuntuak eta proposamenen berri jaso.
- Hezkuntza politikei buruzko hausnarketa eta eztabaida eragin, gazteon ikuspuntutik, ekarpenak jaso eta Administrazioei helarazi.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Bideo-lehiaketaren oinarriak idatzi.
- Bideo-lehiaketan parte-hartzeko deialdia egin.
- Bideoak jaso eta gizarteratu.
- Bideo onenak aukeratu.
- Sariak banatu eta bideoen gizarteratze lana egin.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
-----	-----	-----	------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----



--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

hartzaileak

Lehiaketako parte-hartzaile moduan:

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.

Bideoen hartzaile moduan:

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Hezkuntza eragileak.
- Hezkuntza arloko politikariak.
- Komunikabideak.

jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio teknikariak eta hezkuntza teknikariak egingo dute ebaluazioa. Batzorde Iraunkorreko Komunikazio eta Hezkuntza arduradunekin batera, hainbat irizpideren arabera: jasotako bideo kopurua, mezuen edukia, kalitatea...

2.2.3 Eskola Kontseilua

deskribapena

Aurten ere, EGK-k, Euskadiko Eskola Kontseiluan unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean parte hartuko du. Bertan, EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arau eta irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorreari ekarpenak egiten zaizkio beti ere gazteon iritzia kontuan izanda.

helburuak

- Euskadiko Eskola Kontseiluan gazteen ahotsa; kezak eta ekarpenak plazaratzea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

Euskadiko Eskola kontseiluko deialdietan parte hartu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

**hartzaileak**

- EGK-ko ikasle elkarteak
- Ikasle gazteak orokorrean

jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Bileretan parte hartu izana.
- Egindako ekarpen kopurua.

2.3 EGUNEROKOTASUNA**deskribapena**

Arlo bakoitzaren lan zehaztatetik aparte, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu...

helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

■ Egunerokotasuneko lanak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGK-ko elkarteak
- EAE-ko elkarte sareak
- EAE-ko administrazioak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Hobekuntzarako proposamenak jaso.



3. PARTE-HARTZEA

Parte-hartze arlo berria sortu zuen EGK-k 2013ko uztailean, "Indartzen" plan estrategikoari, martxoko asanbladan onartutakoari eta 2013ko plangintza orokorrean jasotakoari jarraipena emanez. Gaztaroan parte-hartzea berezko errealitatetzat jotzen du EGK-k, interes eta garrantzi handikoa dena, gazteen bizitzetan eta euren garapen sozio-ekonomiko, kultural eta pertsonalean eragina duena. Gazteriaren Kontseiluaren baitan parte-hartzerako berezko arloa sortu izana ikusmolde honekin bat dator.

Parte-hartze arloak gazteen partaidetzaren sustapena du helburu, eta bere zeregina proaktiboa da. Horretarako a) jardueren bidez parte-hartzea era praktikoa bultzatzeaz gain, b) gazteen eta parte-hartzearen errealitatea jaso, hausnartu eta ezagutu behar ditu. Hala, ondorioak eta gomendioak izango dituzten aldizkako neurketak eta ikerketak burutzea izango da arlo honen eginkizuna.

Honen ondorioz lan teoriko-praktikoa da parte-hartzearen arlokoa, askotan bulegotik kanpo egingo dena. Gazteen inplikazioaren inguruan kalitatezko ezagutza handitzen den heinean, eraginkorragoa den partaidetza bultzatu eta sustatuko da.

3.1 EUSKAL GAZTEEN BEHATOKIAREKIN ELKARLANA

3.1.1 Ikerketa kuantitatiboa

deskribapena

Parte hartzeko, eta honekin batera, gazteek parte ez hartzeko dituzten arazoak eta motibazioak ezagutzeko nahian, "Gazteak eta parte-hartzea" ikerketa burutu zuen 2013an EGK-k. Hortik aurrera parte-hartzearen inguruko hausnarketa ez da eten, eta honi esker 2014an Euskal Gazteen Behatokiaren eta EGK-ren arteko lankidetzari hasi zen.

Lan honen ondorioz, aurten burutuko den ikerketa kuantitatiborako aurre-analisia eta galdetegia elkarrekin prestatu zuten erakunde biek.

helburuak

Helburu orokorra

"Gazteak eta parte-hartzea" ikerketan egindako lanari sakontasuna ematea, diagnostikoari lotutako ikerketa berri baten bitartez. Horrez gain, 2014an GEBrekin landutako aurre-analisia eta galdetegia praktikara eramatea. Honekin batera, kalitatezko prestakuntza-tailerrak burutzea

Helburu zehatzak

- 2014an landutako metodologia eta galdetegia aplikatzea 1.500eko lagina duen landa-lanean.
- Gazteen Euskal Behatokiari (GEB) datuak ateratzen laguntzea.
- Datuetan oinarritutako ondorioen txostena idaztea GEBrekin batera.
- Datuetan oinarritutako bideo baterako ideiak lantzea eta zeregin honetan Komunikazio arloari laguntza ematea.

**ekintzak eta epeak****Ekintzak**

- Ikerketaren landa-lana eta datuen prozesaketa
- GEBrekin Datuak ateratzea eta analisiak egitea. Txostena idaztea
- EGK-ko bideorako ideiak ateratzea eta laguntzea.
- Txostena eta bideoa publikoa egitea (GEBren arabera)

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK-ko kide diren elkarte guztiak.
- Parte hartzen duten gazteak eta gazte eragileak oro har.
- Gazteak orokorrean.
- Euskal Gazteen Behatokia, Eusko Jaurlaritza (Kultura Saileko Kirol eta Gazteria Zuzendaritza, bereziki), BFA, AFA eta GFA.
- Gizartea orokorrean.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Galdetegiaren baliagarritasuna.
- Ikerketa kuantitatiboan parte hartu duten gazteen kopurua.
- Ikerketa kuantitatiboaren analisisien emaitzak.
- Oihartzun soziala eta komunikatiboa, batez ere gazteen artean.
- Bideo berriari harrera eta beronen zabalpen-maila. Bisita kopurua.
- Lan ildo hau gauzatu ahal izateko GEBren kolaborazioa ezinbestekoa izango denez, erakunde honen partetik kronograman egon daitezken balizko aldaketak aurreikusi dira. Honen ondorioz, egoeraren arabera moldatuko dira plangintza eta epeak.

3.1.2 Prestakuntza-tailerrak**deskribapena**

Ikerketa kuantitatiboarekin batera EGK-k prestakuntza-tailer bat emango zuela erabaki zuten EGK-k eta Behatokiak, 2015eko GEBren plangintzaren baitan. Hala “Gazteen parte-hartzerako tresnak” izenarekin euskarazko tailerra prestatuko du Kontseiluak, maiatzean Bibon eta Donostian gauzatu dena.

helburuak**Helburu orokorra**

“Gazteen parte-hartzerako tresnak” ikastaroak gazteek parte-hartzeko eta parte ez



hartzeko dituzten arrazoiak, moduak eta klabeak argitzen laguntzea du helburu. Horretarako EGK-ren ibilbideaz baliatuko da, adibide teoriko-praktikoak ezarriz.

Helburu zehatzak

- GEBren prestakuntza planaren baitan eta 2014an adostutakoari jarraipena emanez, maiatzean Bilbon eta Donostian burutuko den “Gazteen parte-hartzerako tresnak” tailerra diseinatzea eta prestatzea. Gazteen Euskal Behatokiari (GEB) datuak ateratzen laguntzea.
- Beste arloekin batera prestatu eta denen lana koordinatzea.
- Maiatzaren 11etik 14ra Bilbon eta Donostian ikastaroa ematea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Ikastaroaren edukia prestatzea eta arloekin lantzea
- Ikastaroa Donostian eta Bilbon ematea

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■	■	■	■	■							
				■							

hartzaileak

- Gazteen parte-hartzearekin zerikusia duten profesionalak, elkarteko kideak, boluntarioak etab.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Parte-hartzaileen kopurua.
- Parte-hartzaileen eta GEBren ebaluaketa.
- Edukiaren kalitatea.
- Koordinazioa eta arloetako inplikazioa.

3.2 GAZTEOLINPIADAK

deskribapena

Gazteria, parte-hartzea eta kirola betidanik elkarrekin ibili dira. Horregatik txikietatik “garrantzitsuena parte-hartzea” dela entzun izan dugu, beti kirolari lotuta. Azken urteotan, gainera, kirolarekin zerikusia duen elkartegintza nagusitu da gazte eragileen artean.

Azken garai honetan EGK-k ez du lotu izan kirola eta inplikazio soziala, eta honen ondorioz, parte-hartze arloko Deialdi Irekian gai hau 2015ean lantzea onartu zen, 2014ko azaroan.

Hau guztia kontuan izanda, aurten EGK-k berezko bultzada eman nahi dio kirolari eta partaidetzari, ekimen barne-hartzaile, berria eta noski, parte-hartzaile baten bitartez.



3.3 GAZTEOK ETA PARTE-HARTZE POLITIKOA

deskribapena

Politikarako testuingurua ez da batere ona gaur egun, gazteen artean bereziki. Horregatik, azken urteotan parte-hartzearen izaera soziala eta *apartidista* azpimarratu izan da hainbat eremutik, EGK barne.

Halere, ezin da ukatu gazteengan eragina dituzten gai ekonomiko, sozial eta publikoak maila politikoan erabakitzen direla. Horregatik, EGK-ren ustez gazteek ez dute urrundu behar politikatik: politika egin behar dute. Politikan eragina izateko alderdien bidez aritzeko aukera dago, baina ez da bide bakarra. Gizarte eragileetatik edota norbanako interesetik ere posible da erabaki politikoetan zeresana izatea.

Modu guztiak bezain zilegiak eta beharrezkoak direla erakusteko, “Gazteok eta parte-hartze politikoa” dinamika irekiko du aurten EGK-k, foru hauteskundeak aprobetxatuz.

helburuak

Helburu orokorra

2015eko foru hauteskundeak dela eta, ordezkari politikoak eta gazteak elkarrekin ipintzea da ekintza honen helburua. Modu horretan gazteek ordezkarien eta hautagaien aurrean hitza hartzeko aukera izango dute. Bere aldetik, eragile politikoek ere gazteei euren proposamenak eta erantzunak emateko testuinguru aproposa edukiko dute.

Helburu zehatzak

- Parte-hartze politiko-elektoralak bultzatzea gazteen artean.
- Gazteen eta ordezkari politikoaren arteko elkarrizketa sustatzea.
- 2015eko hauteskundeetarako dauden aukera eta ideia ezberdinak zuzenean ezagutzeko aukera izatea.
- Gazteek euren proposamenak, kritikak galderak plazaratzeko aukera ematea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

Eztabaida diseinatzea. Balizko ponenteekin hitz egitea. Lekua erreserbatzea (EHUn?)

Eztabaida burutzea. Ahal den neurrian maiatzaren 19an edo hauteskunde kanpainaren baitan, bestela gertu

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak



- EGK-ko elkarteak eta gazte eragileak oro har.
- Gazteak orokorrean.
- Administrazio publikoak.
- Alderdi politikoak.
- Gizartea, oro har.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Eztabaidaren kalitatea eta interesa.
- Dinamikaren baliagarritasuna.
- Gazteen parte-hartze maila eta kopurua.
- Alderdien parte-hartze maila eta hizlarien kalitatea.
- Lortutako ondorioak.

3.4 GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENKO HARREMANA

3.4.1 Material eta gelen lagapena

deskribapena

laz material eta gelen lagapenaren prozedura estandarizatu zen, eta parte-hartze arloak honen ardura hartu zuen. Zerbitzu honen bitartez elkarteen eta EGK-ren arteko harremana sakondu egiten da eta, aldi berean, Kontseiluari zentzu praktikoa ematen dio.

Aurten ere, lan hau EGK-ko gainontzeko arloekin koordinatuko da.

helburuak

Helburu orokorra

EGK-ren elkarteei eta beste eragileei gelak eta materialak maileguan eskaintzea, gazte elkartegintzarekin eta eremu parte-hartzaileekin harremanak sortuz.

Helburu zehatzak

- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko materialak eta gelak lagatzea.
- Indarrean dagoen prozedura estandarizatua jarraitzea eta hobetzea.
- Egindako lagapenei jarraipena egitea eta zerbitzua bultzatzea.
- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarrekiko konfidantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Material eta gelen lagapenaren prozedura jarraitu eta hobetu.
- Material eta gelen lagapena.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
-----	-----	-----	------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----



hartzaileak

- EGK-ko elkarteak eta gazte eragileak oro har.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Prozeduraren eraginkortasuna.
- Kalitatean.
- Kopuruan.
- Lagapena burutu izanagatik, eragileekin hobetu eta lortu diren harremanak.

3.4.2 Gazte eragileei aholkularitza eta parte-hartzearen sustapena

deskribapena

Parte hartu nahi duten gazteei eta gazte eragileei laguntza eskaintzea Parte-hartze arloaren zeregin nagusietako bat da. Lan hau egiteko asmoz modu proaktiboak (eskaeraren aurretik EGK bera hurbiltzea) eta jasotzaileak (jasotako eskakizunei erantzutea) erabili beharko dira. Guzti hau praktikara eramateko, egindako ikerketei esker oso tresna praktikoa lortu ditu EGK-k, eta hausnarketetan jasotzen diren ondorioak eta diagnostikoak kontuan hartuko ditu.

helburuak

Helburu orokorra

Gazteek eta eragileek dituzten beharrak, kezkak, proposamenak eta dudak entzutea eta modu egokian bideratzea. Honekin batera, gazteen parte-hartzerako foroak eta bilerak bultzatzea, Hiruburuak bezalakoak.

Helburu zehatzak

- Gazteek eta eragileek dituzten beharrak, kezkak, proposamenak eta dudak entzutea eta modu egokian bideratzea.
- Kanpoko eragileei ere aholkularitza eskaintzea.
- Ahal den neurrian, sare ezberdinetan parte-hartzea euren ideiak jasotzeko eta EGK-renak transmititzeko.
- Batzorde Iraunkorrekarekin harremanetan egotea, parte-hartzearen inguruko aholkularitza emateko.
- Aldaketak izatekotan, Gida berritzea.
- Urtearen amaieran, Gasteizen Hiruburuak egitea eta Deialdi Irekia prestatzen hastea.

Ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Gazte eragileei aholkularitza.
- Hiruburuak eta Deialdi Irekiaren prestaketa

**Kronograma**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Parte hartu nahi duten gazteek.
- Gazte eragileak (EGK-koak eta kanpokoak).
- Gazteria, orokorrean.

jarraipenerako eta ebaluaketarako irizpideak

- Harremanen kopurua eta edukia.
- Kanpoko eragileetara hurbiltzeko gaitasuna.
- Hiruburuetan parte-hartze maila eta ondorioak.

3.5 ERAKUNDE PUBLIKOekin ELKARLANA**deskribapena**

EGKren zereginetako bat gazte eragileen eta erakunde publikoen arteko zubi-lana izatea da. Euskadiko administrazioek paper garrantzitsua jokatzen dute gazteen parte-hartzearen arloan eta euren laguntza, kooperazioa eta kogestioa ezinbestekoa da proiektuak errealitateak bihurtu ahal izateko

Harreman instituzional honek seriotasuna eta zilegitasuna ere ematen dio EGK-ri, eguneroko lanak babes ofiziala jasotzen duen neurrian. Zentzu honetan, etorkizunari begira oso modu baliagarria izan daiteke proiektu berriei bideragarritasuna emateko.

helburuak**Helburu orokorra**

Lortutako harreman instituzionalak mantentzea eta harreman berriak ahal den neurrian garatzea, parte-hartzearen berezko ikuspegitik. Praktikara eramateko bideak (proposamen praktikoak) aztertzea.

Helburu zehatzak

- Eusko Jaurlaritzarekin harremana sakontzea (GEB barne).
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eta Foru Aldundiekin harremanetan jarraitzea. Ahal den neurrian, Aldundi bakoitzak duen berezko eskaerak bideratzea.
- Beste mailako erakundeei gurekiko harremana izatea eskaintzea.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

■ Erakunde publikoekin harremana

Kronograma



URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK erakunde gisa.
- Administrazioak.
- Gazteak, oro har.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lortutako harremanen kopurua eta kalitatea.
- Harreman horietatik lortutako akordioak eta ekintza praktikoak.

3.6 EGUNEROKOTASUNA

deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu; lankide berrien hautaketa-prozesuetan parte hartu...

helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

■ Egunerokotasuneko lanak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Lantalde teknikoa.
- EGK-o elkarteak.
- EAEko elkarte sareak.
- EAEko administrazioak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Jasotako hobekuntzarako proposamenak.



4. BAKE ETA BIZIKIDETZA

2014eko ekainean EGK eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmen bat sinatu zuten. Helburu nagusia “Euskadiko 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Plana garatzeko gazteriaren eta heziketa ez-formalaren jardura-lerro espezifikoak partekatzea, diseinatzea, garatzea eta gauzatzea” zen. Sinadura honen ondorioz, EGK-k Bake eta Bizikidetzaren lan arloa berreskuratu zuen, nahiz eta gai hauen inguruan zuen ikuspuntua birpentsatu behar izan zuen, euskal gizarteak bizi duen une historikoari erantzuna emateko. Betiere, gazteen ezaugarriak, bizi esperientziak, beharrak, interesak, azken finean, ahotsa kontutan hartuta.

2014eko abendura arte, hitzarmenean jasotako hiru proiektuak burutu ziren helburu bakar batekin: gazteek bakea finkatzeko orduan partaide zirela sentiaraztea, haien esperientziak, beharrak eta interesak azaltzeko esparru propioa eta segurua zutela bermatuz. Hauek izan ziren EJ-EGK hitzarmenaren babesean 2014ean aurrera eramanean ziren hiru proiektuak:

- Testigantzak eta ikuspuntuak euskarri ezberdinetan partekatzeko *Bakeahots* komunitate birtuala.
- *Gazteria biolentziaren aurrean: bizikidetzaren sustatuz* formakuntza saioak.
- *Bake ibilbideak* topaketak.

Burutu ziren hiru proiektu hauez gain, *Baketegia* erreferentzia-funtsa planteamenduaren proiektua diseinatu zen.

Gure lehenetsuen artean ez egon arren, gazteek bake eta bizikidetzaren inguruan zer esan badugula ikusi da aurrera eramandako ekimen ezberdinetan. Gazteek, beste errealitate ezberdinak bizi izan dituzten gazteekin topatzeko esparru erosoak behar dituztela ere. Gure testuinguruetan bizi izandako isilune eta erantzun gabezia gainditu nahi dugu, gure iragana, oraina eta etorkizunarekiko dugun ikuspuntua anitzagoa eta aberatsa izan dadin.

Gainera, 2014ean burututako ekimenak komunikabide ezberdinetan zabaldu arren, egindako lana eta ondorioen gizareratze sakonago baten beharra dago, gazteria gizarte baketsu baten eraikuntzan konprometiturik eta lanean ari den talde gisa aitortzeko.

4.1 BAKE-ARTE TAILERRAK

deskribapena

2014ko urrian martxan jarritako Bakeahots komunitate birtuala gazteen artean ezagutarazteko helburuarekin, hiru lurraldeetako artista-elkarteekin bake-arte tailer bat antolatu nahi da. Gazteei zuzendutako tailer hauetan, dinamika artistikoak burutuko dira, artea eta kultura eta bakea eta Giza Eskubideen defentsaren arteko loturaren inguruan hausnartzeko (dinamizatzaileak ere gazteak izateko ahalegina egingo da). Lortutakoak Bakeahots komunitate birtualera igoko dira.

helburuak

**Helburu orokorra**

Gazteen testigantzak eta ikuspuntuak euskarri ezberdinetan partekatzeko espazio ireki bat sortu eta mantendu.

Helburu zehatzak

- Bakeahots komunitate birtualari jarraipena eman eta EAEako gazteen artean ezagutarazi.
- Gazte bake-lana eta kultura eta arte mundua lotzea.
- Gazte memoria artistiko bat sortu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

- EAEko artisten erakundeekin harremana sortu eta bilerak egin.
- Tailerrak prestatu
- Tailerrak burutu.
- Bakeahots komunitate birtualera edukiak igo.
- Ebaluaketa

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
	■	■									
	■	■									
		■									
			■								
						■					
											■
											■

hartzaileak

- EAEko gazte artistak
- EAEko gazteak oro har
- EAEko erakunde artistikoak
- Gizartea oro har

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Tailerrak burutzea.
- Tailerretan parte-hartze anitza lortzea.
- Gazteak bake-arte tailerretatik gustura ateratzea.
- Gazteak bakea eta artea eta kulturaren munduaren arteko loturaz ohartzea.
- Kalitatezko edukiak sortzea.
- Bakeahotseko eduki kopurua igotzea.
- Bakeahotseko parte-hartze maila areagotzea.



- Gazteak ekimenetatik gustura ateratzea.

4.3 GAZTE BAKEGINTZAREN DOKUMENTALA I

deskribapena

EGK eta EJ hitzarmeneko lehenbiziko ekimenetan lortutako ikus-entzunezko materialaren baliagarritasuna antzemanda eta parte hartu duten gazteen gai hauekiko interesa ikusita, 2015eko ekimenak grabatuko dira. Helburua, 2016. urtera begira, EGK eta EJren lan hitzarmenaren baitan egindako lan guztia dokumental baten bitartez plazaratzea, gizarteratzea da. Dokumentala Giza Eskubideen zinema jaialdian aurkeztu daiteke. Era honetan, parte hartu duten gazteen ikuspuntuak eta itxaropenak, instituzio, gizartea eta beste gazte batzuk kontzientziatu, sensibilizatu eta konprometitu daitezke, bakegintza prozesuan parte-hartzeko.

helburuak

- Ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortu.
- Gazteen kezkak, beharrak, interesak eta proposamenak instituzio eta gizarteari helarazi.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragile moduan aitortua izatea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- EGK-ko Bake eta Bizikidetzak ekimenak grabatu.
- Grabazio taldearekin dokumentalaren edukiak eta gidoia adosten joan.
- Baimenak eskatu.
- Distribuzio kanalak aztertu.
- Ebaluaketa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
	■	■ ■ ■			■ ■ ■ ■	■ ■ ■ ■	■ ■ ■ ■	■ ■ ■ ■	■ ■ ■ ■	■ ■ ■ ■	■ ■ ■ ■

hartzaileak

- EGKk antolatutako Bake eta Bizikidetzak ekimenetan parte-hartzen duten gazteak.
- Gizartea.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Parte-hartzaileen artean grabazio baimena gehienak lortu.



- Adostutako grabazioak burutzea.
- Ikus-entzunezko kalitatezko materiala lortzea.
- Distribuzio kanal interesgarriak aurkitzea.

4.4 ERREFERENTZIA-FUNTSA GAUZATU

deskribapena

2014ean diseinatutako *Baketegia* erreferentzia-funtsa gauzatzeke dago. Erreferentzia-funtsa webgune bat izatea proposatzen da, non bertan zinemako, antzerkiko eta literaturako erreferentziak txertatuko diren; betiere bake eta bizikidetzarekin lotutako gaiak helburu pedagogiko batean jorratzen badituzte. Erreferentzia bakoitzaren ezaugarri teknikoak fitxa batean jasoko dira. Gainera, webgune honen protagonismo osoa erabiltzaileek izango dute, hauei erreferentziak kontsultatu, partekatu, deskargatu, proposatu eta komentatzeko aukera emango zaielako. Hasieran azaldutako diziplina artistikoetako erreferentziak eskainiko dira soilik, baina aurrerago, zerrenda zabaltzea espero da: eskultura, pintura, komikia, prentsa-erreportajeak eta artikuluak, ikerketak eta dokumentu akademikoak gehituta, besteak beste.

Hala ere, webgunea eraikitzen duen profesionalaren zerbitzuak kontratatu aurretik, ezinbestekoa da zehaztea nork izango duen *Baketegia* kudeatzeko eta mantentzeko ardura.

helburuak

- Bizikidetzako eta gizartea elkartzeko kultura lortzeko baliabide eta aplikazio sortzaileen eta artistikoen funtza sortzea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Erreferentzia-funtsa nork kudeatu eta mantenduko duen erabaki.
- Erreferentzia-funtsa sortuko duen profesionala kontratatu eta honek webgunea egin.
- Ebaluaketa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
	■	■	■								
					■	■	■				
						■					■

hartaileak

- Instituzio-Administrazioa.
- Gizartea

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak



- Erreferentzia-funtsaren diseinuaren bideragarritasun egokia.
- Erreferentzia-funtsa nork kudeatu eta mantenduko duen adostea.
- Erreferentzia-funtsa burutzea.

4.5 BAKEIZKETAK

deskribapena

Gazteok gai hauetan daukagun ikuspuntua aberatsagoa eta anitzagoa izan dadin, EAEko iragana eta orainaldiarekin lotuta dauden pertsona esanguratsuekin topaketak antolatu nahi dira. Topaketa hauek *elkarrizketa bideratuaren* metodologiaz baliatuz diseinatuko dira. Topaketa hauek eragin handiagoa izan dezaten, egun bateko iraupena izan ordez, asteburu bateko barnetegia egitea proposatzen da, baina hau aurrerago zehaztuko da, partaideen aukeren arabera.

helburuak

- Gazteak bakegintzaren protagonistak direla sinestarazi.
- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakunde gisa irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragile moduan aitortua izatea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Bakeizketak saioen metodología sortu.
- Perfil ezberdineko pertsonekin harremanetan jarri eta ekimenean parte-hartzera gonbidatu.
- Bakeizketak erreferentzizko pertsonaekin prestatu.
- Bakeizketak burutu. (zehazteke ekaina, iraila edo urria)
- Ebaluaketa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
	■	■	■								
			■	■	■						
					■			■			
						■			■		
							■				
											■

hartzaileak

- EAEko gazteak.
- Gure historian protagonismoa izan duten perfil ezberdineko pertsonak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bakeizketak era egokian gauzatzea.



- Lan taldea sortzea eta urtean zehar mantentzea.
- Lan taldean parte-hartzen duten gazteen perfila anitza izatea.
- Lan taldean parte-hartzen duten gazteak gustura etortzea.
- Nazioarteko egunetan ekintzak gauzatzea.
- Ekintzen kalitatea.
- Ekintzen erreperkusioa.

4.7 BAKEA UNIBERTSITATEETAN

deskribapena

Bakegintza eta hezkuntza, eskutik joan beharko luketen bi mundu dira. Denbora faltagatik, 2014ean diseinatutako prestakuntza saioa EAEko unibertsitateetara eramateko aukerarik ez zen egon. Beraz, 2015ean EAEko hiru unibertsitateetan Bakea eta Bizikidetzaren arloak lantzeko ekintza bat egin nahi da. Horretarako unibertsitateetan ikasten duten gazte eragileekin bilerak adostu nahi dira. Bileretan ateratako ondorioei esker, errazagoa izango da zehaztea zein motatako ekimena egingo den.

helburuak

- Gazte bake lana eta hezkuntzaren mundua lotzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakunde gisa irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragile moduan aitortua izatea.
- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Unibertsitateetan aktiboki lan egiten duten ikasle mugimendu edo erakundeekin kontaktuan jarri eta aurkezpen bilerak egin.
- Unibertsitateko bake lan taldea sortu.
- Unibertsitateetan egingo diren ekimenak zehaztu.
- Ekimenak gauzatu.
- Ebaluaketa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
	■	■									
		■	■								
			■	■	■			■			
						■	■		■		
											■

hartzaileak

- EAEko unibertsitateko gazteak erreferenteak.



- EAEko unibertsitate ezberdinetako gazteak.
- EAEko gazteak.
- EAEko unibertsitateetako irakasle interesatuak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- EAEko unibertsitateetako gazte eragileekin bilerak egitea.
- Bileretan Bakea eta Bizikidetzaren unibertsitateetara eramateko ekintza zehatzak adostea.
- Kalitatezko ekintzak izatea.
- Zehaztutako ekintzak behintzat behin EAEko unibertsitate bakoitzean egitea.
- Ekintzetan parte-hartze handia eta anitza lortzea.
- Ekintzetatik parte-hartzaileak gustura ateratzea.

4.8 GAZTEEN BAKE MANIFESTUA

deskribapena

Urtean zehar Bake eta Bizikidetzaren arloan egingo diren ekintzen ostean, parte-hartzaile gehienekin bake manifestu original gaztea adostea lortu nahi da. Adostasun puntuak etorkizunera begira idatzi, iraganaren diskurtso ezberdinak sortzen duen gatazka saihestuz. Halaber, azkeneko ekintza izateak zentzua du: urtean zehar egin diren ekintzak hausnarketa hondar bat utziko baitute parte-hartzaileengan. Honela, errazagoa izango baita adostasunak bilatzea, parte-hartzaileen ideologiak ulertu eta gizatiartuak izatea espero delako. Bestetik, esan beharra dago, manifestua ez dela soilik idatziz egingo, beste lengoai artistikoak erabilita sortuko da. Gainera, lortutako emaitzak ez dira esanguratsuena izango, akordioetara iristeko bizi izan den prozesua eta honek mugitutako emozioak baizik.

helburuak

- Errealitate, bizipen eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzea eta haien gainean hausnarketa sustatzea.
- Gazteak bakegintzaren protagonistak direla sinestarazi.
- Gazteen kezkak, beharrak, interesak eta proposamenak helarazi instituzio eta gizarteari.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakunde gisa irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragile moduan aitortua izatea.


ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Gazteen bake manifestua egiteko saioak pentsatu eta prestatu.
- Gazteen bake manifestuaren saioak gauzatu.
- Ebaluaketa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
								■	■		

**hartzaileak**

- EAEko gazteak.
- Gizartea oro har.
- Instituzioak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Gazteen bake manifestua adosteko saioak era egokian gauzatzea.
- Saiotara perfil anitzeko gazteak etortzea.
- Gazteen bake manifestu anitza eta kalitatezkoa lortzea.
- Parte-hartzaileak gustura ateratzea.
- Gazteen bake manifestuak zabalpen handia izatea.

4.9 EGUNEROKOTASUNA ETA PLANIFIKATU GABEKO BAKE EKINTZAK**deskribapena**

Beste puntuetan azaldu diren ekintzak garatu eta gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da eragile ezberdinekin maiztasunez elkarlana egitea. Gainera, plangintza honetan aurkitzen ez diren ekintzetan parte-hartzeko gonbiteak jasotzen dira. Bestetik, teknikari bakoitzaren gunetik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanak kontutan izan behar dira, lan arloko egunerokotasunean eragina baitute.

helburuak

- EGK-ko Bake eta Bizikidetzaren arloarekin elkarlana egiten duten eragileekin harremana mantendu, partekatzen diren helburuak betetzeko.
- EGK-ren koherentzia izaera eta funtzionamendua bermatzen duten eguneroko lanak egin.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

- Egunerokotasunaren menpe dauden funtzioak: egoitzako kudeaketa lanak.
- Talde, batzorde eta eragile ezberdinekin bilerak.
- Urteko proiektuen justifikazioa.
- 2015eko memoriak eta 2016eko plangintza.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■
	■	■	■					■	■		
											■



hartzaileak

- Lan talde teknikoa.
- EGK-ko Batzorde Iraunkorra.
- EJ-EGK-ko Jarraipen Batzordea.
- EGK-ko elkarteak.
- EAeko gazteak.
- Gizartea.
- Beste eragile batzuk (ekintzaren araberakoak).

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bake eta Bizikidetzaren lan arloari egiten zaizkion eskaerei erantzun egokia eman.
- Lana hobetzeko egiten diren ekarpenak jaso eta lanean antzeman.
- Eguneroko lanak era egokian kudeatu.
- EGK-ko beste lan arloetako proposamenei baliogarriak diren balorazioak eman eta ekintzetan parte hartu.



5. BERDINTASUNA

Aurten, 5 hilabeteko epez, teknikari berri bat gehitu zaio EGK-ko lan taldeari, berdintasun arloaren barnean diagnostiko bat burutuko duelarik. Bere lanaren bitartez, emakumeen eta gizonen arteko egoerari buruzko berdintasun tratua eta aukerak nolakoak diren aurkeztuko ditu, halaber, sexu-joeraren eta sexu-generoaren identitatearen inguruko diskriminazioaren egoera ezagutuko da. Hau guztia CJEren (Consejo de la Juventud de España) laguntza bati esker egingo da.

5.1 EMAKUMEA ETA GENEROA

deskribapena

Gazte eta berdintasun diagnostikoaren bitartez, Euskadiko Gazte Elkartearen eta EGK-ko langileen ikuspegia ezagutuko da berdintasun arloan. Ekintza honen helburua, EGKren egunerokoan berdintasun ikuspegi bat txertatzea da.

Horretarako, ikerketa lan bat egingo da, kontseiluaren barruan burutuko dena eta berdintasuna eskuratzeko lan arlo guztiak (indarkeria, genero rola, itxura fisikoa, segurtasuna-askatasuna, etab.) ukituko dituena.

Berdintasunaren inguruko bi inkesta kuantitatibo desberdin egingo dira. Alde batetik, EGKn lan egiten duten pertsonen zuzendutako galdeketa eta bestaldetik, elkarteetan parte hartzen duten 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat bideratuta.

Amaitzeko, diagnostiko bat gauzatuko da. Marko teoriko bat izango du, helburu orokor eta zehatz batzuekin, hipotesi batzuk izendatuko dira, metodologia azalduko da, justifikazio bat txertatuko da ere, eta azkenik, lortzen diren ondorioekin, proposamen batzuk aurkeztuko dira.

helburuak

Helburu orokorrak

- EGKren egunerokoan berdintasun ikuspegi bat txertatu.
- Berdintasun arloa gazteen egunerokoan nolakoa den begiztatu.

Helburu zehatzak

- EGK-an berdintasun ikuspegia bermatzen den ala ez ohartarazi.
- EGK-ko langileen pertzepzioa ezagutu berdintasunarekiko.
- EGK-an parte hartzen duten gazte elkartearen pertzepzioa ezagutu berdintasunarekiko.
- EGK-an berdintasun arloan lan egiteko proposamenak aurkeztu.
- Berdintasunarekin erlazionaturiko mundu mailako egunetan, web orrialdean argitalpen bat egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak



- Informazio bildu.
- Inkestak egin.
- Datuen gurutzaketa eta emaitzen irakurketa.
- Txostena burutu.
- Maketazioa egin.
- Argitalpena eta zabalpena.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- EGKn parte hartzen duten elkarteak
- Instituzio – Administrazioak
- Gizartea.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bilatutako informazioaren baliagarritasuna egiaztatu: Autore adituen liburuak jarraitu, datu estatistikoak zerbitzu fidagarrietan bilatu (Eustat, Emakunde, Gazteen euskal behatokian, etab.), berdintasun gaiari buruzko hitzarmenetan parte hartu.
- Inkesta erraza eta arina gauzatu: galdera ulerkorrak eta zehatzak egin, inkestak ondo beteta dauden egiaztatu. Inkestak bidali, egin eta itzultzeko erraztasunak jarri eta jendearen parte-hartzea kontutan hartu, azkenik, zenbat inkesta betetzen diren zenbatu.
- Diagnostiko zehatza eta ulergarria egin: Lortzen diren datuen irakurketa ondo azalduta egotea. Horretarako, txostena argitaratu baino lehen, lankideei bidali irakurri dezaten, beraien iritzia jakiteko.
- Proposatu diren helburuak bete: Inkestetan lortu diren emaitzak ezagutzerakoan, eskuratu nahi diren helburuak lortzeko bide egokia jarraitzen dela ziurtatu eta diagnostikoa burutzerakoan helburuak lortu ote diren antzeman.

5.2 LGTB**deskribapena**

Gazte eta berdintasun diagnostikoaren barnean, LGTB kolektiboari buruzko atal bat azalduko da, non LGTB taldeari buruzko pertzepzioak ezagutuko diren, EGKn zabalduko den inkestaren bitartez.



Bestalde, LGTB taldearen gaur egungo egoera zein den deskribatuko da, esparru desberdinetako (lege, lan, osasun eta gizarte) errealitatearen ikerketa eginez.

helburuak

Helburu orokorrak







- LGTB taldeari buruzko pertzepzioak ezagutu.
- LGTB taldearen gaur egungo egoera ezagutu.

Helburu zehatzak





- LGTB zer den ezagutzea.
- Gazteek LGTB taldeari buruzko hautematea ezagutzea.
- Esparru desberdinetan dituzten arazoak eta interesak ezagutzea.
 - Lege arloan
 - Lan arloan
 - Osasun arloan
 - Gizartean orokorrean
- Homofobiaren eta transfobiaren aurkako dekalogo bat egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Informazio bilketa.
-  Elkarrizketak egin.
-  Datuen gurutzaketa eta emaitzen irakurketa.
-  Txostena burutu.
-  Maketazioa egin.
-  Argitalpena eta zabalpena.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											
											
											
											

hartaileak

- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- EGK-an parte hartzen duten elkarteak
- Instituzio – Administrazioak
- Gizartea.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak



- Bilatutako informazioaren baliagarritasuna egiaztatu: Autore adituen liburuak jarraitu, datu estatistikoak zerbitzu fidagarrietan bilatu (Eustat, Emakunde, Gazteen euskal behatokia, etab.), LGTB-ko elkarteekin elkarrizketak burutu.
- Inkesta erreza eta arina gauzatu: galdera ulerkorrak eta zehatzak egin, inkestak ondo beteta dauden egiaztatu. Inkestak bidali, egin eta itzultzeko erraztasunak jarri eta jendearen parte-hartzea kontutan hartu, zenbat inkesta betetzen diren zenbatu.
- LGTB taldearen elkartearekin datuak kontrastatu. Horretarako, informazioaren bilketa osoa burutu behar da, elkartearekin biltzerakoan esparru bakoitzeko analisia landu ahal izateko.
- Diagnostiko zehatz eta ulergarria egin: Lortzen diren datuen irakurketa ondo azalduta egotea. Txostena argitaratu baino lehen, lankideei bidali irakurri dezaten.
- Proposatu diren helburuak bete: Inkestetan lortu diren emaitzak ezagutzerakoan, eskuratu nahi ditugun helburuak lortzeko bide egokia jarraitzen dela ziurtatu eta diagnostikoa burutzerakoan helburuak lortu direla antzeman.

5.3 EGUNEROKOTASUNA

deskribapena

Arlo bakoitzean landuko diren gaiez aparte, teknikarien arteko bilerak gauzatuko dira (bilera teknikoak, batzorde iraunkorrek bilerak). Materialak, dokumentuak, datuak eta inkestak irakurri, kudeatu eta landuko dira. Jasotzen diren email-ak, dokumentuak, eskutitzak, etab artxibatu eta deribatu behar diren tokietara; agendako puntuak egunean bete. Beste teknikarien lanaren jarraipena egin, proposamenak emateko, berdintasun ikuspegia txertatzeko.

helburuak

- Egoitzetako lan teknikoa eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

■ Egunerokotasuneko lanak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Lan talde teknikoa
- EGK-ko elkarteak
- EAE-ko elkarte sareak
- EAE-ko administrazioak



jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Eguneroko jarraipena eta ebaluaketa izango da. Email-ak egunero irakurri, lankideak bidaltzen dituzten txostenen irakurketa eta ekarpenak jardun, egunero ezarritako ekintzak bete, hobekuntzarako proposamenak jaso.



6. KOMUNIKAZIOA

Komunikazio teknikariaren lana EGK-k egiten dituen ekintza guztien zabalpena egitea da, bai medio propioak erabiliz (webgunea, sare sozialak, e-mailak), bai hedabideen bidez. Eginkizun hau gauzatzeko beste teknikariek oso koordinatua egon behar da, norbera une bakoitzean zer egiten ari den jakiteko eta aurrera eraman behar diren jarduera guztiak denboran ordenatzeko. Komunikazio lan arloa presidentziarekin ere oso lotuta dago, gai bakoitzean EGKren mezua argi egon behar delako.

6.1 'RECACCIONA' BIDEO LEHIAKETA: "GAZTEAK & HEZKUNTZA"

deskribapena

"Parte hartzeko garaia da" eta "gazteak, enplegu duina! lelopetan, RECacciona bideo lehiaketaren lehenengo bi edizioak gauzatu zituen arrakastaz Euskadiko Gazteriaren Kontseilua 2013 eta 2014an. Aurten, 2015ean, lehiaketaren hirugarren edizioa abiatuko du EGK-k. Hauxe izango da gaia: *Gazteak & Hezkuntza*. Proiektu hau Komunikazio eta Hezkuntza teknikariek abiatuko dute elkarlanean, hezkuntza lan arloan eragile aktiboak direnen ahotsak aintzat hartuz.

helburuak

Helburu orokorra

- Euskal gazteriak hezkuntza arloan bizi dituen egoerak, arazoak eta kezkak ikustarazi eta hauei aurre egiteko proposamenak gizarteratu.

Helburu zehatzak

- Hezkuntza arloan gazte eta gazte-elkarte ezberdinek dituzten egoerak ezagutu, ikuspuntuak eta proposamenen berri jaso.
- Hezkuntza politikei buruzko hausnarketa eta eztabaida eragin, gazteon ikuspuntutik, ekarpenak jaso eta Administrazioei helarazi.
- EGK-k hezkuntza arloan egiten duen lana ezagutarazi.


ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Bideo-lehiaketaren oinarriak idatzi.
- Bideo-lehiaketan parte-hartzeko deialdia egin.
- Bideoak jaso eta gizarteratu.
- Bideo onenak aukeratu.
- Sariak banatu eta bideoen gizarteratze lana egin.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



hartzaileak

Lehiaketako parte-hartzaile moduan:

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.

Bideoen hartzaile moduan:

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Hezkuntza teknikariak.
- Hezkuntza arloko politikariak.
- Komunikabideak.

jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio teknikariak eta hezkuntza teknikariak egingo dute ebaluazioa, Batzorde Iraunkorreko Komunikazio eta Hezkuntza arduradunekin batera, hainbat irizpideren arabera:

- Jasotako bideo kopurua.
- Jasotako bideoen mezuen edukia.
- Jasotako bideoen kalitatea.
- Bideoen ikustaldi kopurua.
- Sare sozialetan eragindako mugimendua.
- Komunikabideetan agerpenak.
- Jasotako iradokizun eta proposamenak.

6.2 TWITTER LEHIAKETA

deskribapena

Hirugarren urtez Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Twitter lehiaketa bat antolatuko du baina, lehenengo aldiz, ez da momentuan sortzen den zerbait izango eta plangintzan sartuko da urte amaieran egiteko aurreikuspenarekin.

helburuak

- Gai baten inguruan (hurrengo urtean EGK-k lantzeko ekarpenak jasotzea izan daiteke berriro ere) eztabaida sortu eta gazteen ideiak eta proposamenak entzun.



ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Twitter lehiaketaren oinarriak eta sariak prestatu
- Parte-hartzeko epea ireki
- Sariak banatu eta sortu diren ideiak zabalpena

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Norbanako gazteak, EGKrekin lotura ez duten gazteengan iristea.
- EGK osatzen duten elkarte eta bestelako gazte mugimenduan gaztea.
- Twitter eta Internet erabiltzaile gazteak

jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio teknikariak ekarpenen zerrenda jasoko du eta teknikari guztiei emango die bakoitzaren lan arloan kontuan izateko. Ebaluazioa hainbat irizpideren arabera egingo da:

- Jasotako txioen kopurua.
- Lorturiko jarraitzaile berriak.
- Sare sozialetan izandako eragina eta arrakasta.
- Txioen kalitatea eta EGK-ko lanean izan dezaketen interesa.

6.3 PIZTU! BULETINA

deskribapena

Gazteek gazteentzat egindako buletin digitala da. Bi-hiru astean behin jasotzen dute hartzaileek, honako edukiekin:

- Euskadiko Gazteriaren kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jardueren berri.
- Bestelako gazte eragileen jardueren berri.
- Komunikabide ezberdinek gazteei buruz eta gazte elkartegintzari buruz argitaratzen dituzten albisteak.

helburuak

Helburu orokorrak



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikustaraztea eta balioan jartzea.

Helburu zehatzak

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).
- Uda eta gero eta Berriz Berri posterraren desagerpenarekin, Piztu! buletinaren agenda indartuko da garrantzia gehiago irabaziko du.












ekintzak eta epeak

Bi/hiru astean behin bidaltzen du EGK-k Piztu buletina.

Ekintzak

 Piztu! buletinaren zabalpena

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											

hartzaileak

1.553 harpidedun (zerrenda hau eguneratu eta handitzeko helburuarekin):

- EGK-ko elkarteak.
- Beste gizarte mugimendu batzuk.
- Gazte-bulegoak.
- Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- Harpidetza egin duten norbanakoak.

Sare sozialetako 5.760 jarraitzaileak:

(3.666 Facebook eta 2.100 Twitter, 2015eko otsailaren 2an).

- EGK-ko elkarteak, beste gizarte mugimendu batzuk, norbanakoak, gazte informazio bulegoak...

jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio arloak Piztu buletinaren ebaluazioa egingo du urte-amaieran, alde zuzenetatik finkatutako irizpideak jarraituz:

- Maiztasuna.
- Harpidedun kopurua/mota.
- Albisteen aniztasun maila.
- Buletinean agertutako eragileen aniztasun maila.
- Jasotako iradokizunak.



6.4 BERRIZ BERRI POSTERRA

deskribapena

1999az geroztik, milaka gazte elkarte, jendarte mugimendu, liburutegi, institutu, fakultate, alderdi, politikari, sindikatu eta gazte bulegok jaso duten poster-agenda da Berriz Berria. Bertan, hileroko-hileroko 10-12 albiste argitaratzen ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Orokorrean, baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileen deialdiak biltzen ditu posterrak, bai eta gazte-zerbitzu zein parte-hartzerako euskal agentzia ere.

Zehazki, EAEko 1.350 postontzi ezberdinetara iristen da, paperean. Gazte-elkarteei, beste gizarte mugimenduei, gazte bulegoei, udal eta aldundietako gazteria arloei eta liburutegi eta gizarte etxeei. Horrez gain, Piztu! buletinarekin batera beste 1.553 helbidetara iristen da. Gainera, Twitter eta Facebooken ia 5.760 jarraitzaileei ere jasotzen dute eta www.egk.org webgunean ere badago.

Dena den, ezin da ukatu 1999tik denbora pasa dela eta gazteekin komunikatzeko formulak asko aldatu direla. EGKren barnean eztabaida izan da azken garaian eta, azkenik, Berriz Berri egiteari uztea erabaki da: garestia da, lan handia suposatzen du eta elkarteek ez dute asko parte hartzen; honen ordez, formula berrien alde apustua egingo da sare sozialetan eta webgunean egiten den lana indartuz. Ekainean azken Berriz Berria argitaratuko da, bukaera polita emango zaio eta azken kartelak irakurtzen dituztenek sare sozialetan EGK jarraitzailearen aldeko saiakera egingo da.

helburuak

Helburu orokorra

Gazte elkarten eta gizarte eragileen lana ikustaraztea eta balioan jartzea. Formatu digitalera pasatzean, lan hau ere egingo da helburu orokor eta zehatzak betez.

Helburu zehatzak

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat *komunikazio euskarri bat eskaintzea*.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%70-90 euskaraz).

ekintzak eta epeak

Hilero. 2015ean bost Berriz Berri poster egingo dira: otsaila, martxoa, apirila, maiatza eta ekaina. Azken Berriz Berria berezia izango da eta uda eta gero Piztu! buletinaren barruan kokatuko da.

Ekintzak

- Azken Berriz Berri posterraren argitalpena
- Berriz Berriaren formatu digital berria gauzatu.

**Kronograma**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak**Papereko alearen 1.350 harpidedun EAEn:**

- EGK-ko elkarteak.
- Beste elkarte batzuk.
- Gazte-bulegoak.
- Liburutegi eta gizarte etxeak.

Piztu! buletinaren bitartez 1.553 harpidedun:

- EGK-ko elkarteak.
- Beste gizarte mugimendu batzuk.
- Gaztetxeak.
- Gazte-bulegoak.
- Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- Harpidetza egin duten norbanakoak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Urte amaieran, komunikazio arloak Berriz Berri-aren ebaluazioa egingo du, hainbat irizpide jarraituz:

- Epeen betetze-maila.
- Albisteen eta eragileen aniztasuna.
- EGK-ko elkarten erabilera-maila.
- Paperezkotik digitalera pasatzeko prozesuaren arrakasta.

6.5 WWW.EGK.ORG WEBGUNEA: KUDEAKETA ETA BERRITZEA**deskribapena**

Webgunearen (www.egk.org) kudeaketa egin behar du egunero Komunikazio teknikariak: EGK-ko albisteen berri emateko, EGK-ko elkarten eta bestelako gazte jardueren berri emateko eta gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albistek zabaltzeko. 2014ko abendutik <http://www.egk.eus> domeinuak ere EGKren informaziora eramaten du.

helburuak**Helburu orokorrak**

- Gazteei eta gazte-elkartei zerbitzu bat eskaini.
- EGKren marka kudeatu.



Helburu zehatzak

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- EGKren argitalpenak interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-ko elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen komunikabideetako albisteak jasotzea.
- Elkarteen zerrenda gaurkotu bat mantentzea.

ekintzak eta epeak

Urte osoan zehar garatzen den lana da.

Egunero:

- Webgunea edukiz hornitu.
- Webgunearen mantentze egokia bermatu (spam ezabaketa, iruzkinen kudeaketa).

Hilero:

- Webgunearen atal finkoagoak gaurkotu (elkarteen helbideak, goiburua, bannerrak...).

Urtean behin:

- Webgunean berrikuntzak kudeatu (aldaketak eta aplikazio berriak aurreikusi).

Eraldaketa prozesua hasiko du EGKren webgunean 2015ean zehar eta Komunikazio teknikariarentzat lan mordoa izango da. Webgune berria aurkeztea nahi da 2016ko martxoan egingo den batzar orokorraren inguruan eta EGKren 30. urteurrenean. Hau gauzatzeko, lana 2015ean zehar aurreratu beharko da lan hauek eginez:

- EGKren oraingo webgunearen kontratua eta ezaugarri teknikoak aztertu.
- Aurrekontu eta baliabide teknikoaren arabera, oraingo webgunea berri edo hasieratik webgune berri oso egitearen azterketa.
- Talde teknikoarekin batera, webgune berriak izan behar duen estruktura, atalak eta ezaugarriak ikusi eta adostu.
- Internetek ematen dituen azken berritasunak sartu eta webgune erakargarria sortzea, baita mugikorretik ikusteko ere.
- www.egk.org helbidetik, www.egk.eus domeinura pasatzeko eman behar diren pausoak gauzatu eta EGK-ko teknikarien helbideak eguneratu xxx@eus bihurtzeko (.org helbidea eta domeinuak ez dira guztiz desagertuko, pixkanaka burutuko den prozesua izango da).
- .eus-era pasatzera beste soportetan (dokumentuak, txartelak, kartelak, komunikabideak) egin behar diren aldaketa guztiak planteatu.

Ekintzak

- Webgune berriaren oinarriak pentsatu.
- www.egk.eus berria izango dena gauzatzeko hasi.

Kronograma



URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

2014ko datuen arabera, webguneak ia 30.000 bisita ditu urtean. Bisitarien %61a, 18-34 urte bitartekoa da. %46a emakumea, eta %54a gizonezkoa. Bisita gehienak Bilbo, Donostia eta Gasteiztik eginak dira, batez ere ordenagailutik (%78) baina mugikorretatik sartzeko joerak gora doa.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Google Analytics bitartez neurtzen ditu Komunikazio Arloak webgunera bisitak.

6.6 SARE SOZIALEN KUDEAKETA

deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hainbat sare sozial erabiltzen ditu bere lanerako garrantzitsua izan daitekeen informazioa jasotzeko, bere lana ezagutarazteko eta gazteei, elkarteei eta bestelako eragileei zerbitzua emateko. Zehazki, Twitter, Facebook, eta Youtube erabili ohi ditu EGK-k, eta orain Instagram kontua ere erabiltzen hasiko da.

helburuak

Helburu orokorrak

- EGKrentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa biltzea.
- Gazteei eta gazte-elkarteei zerbitzu bat eskaintzea.
- EGKren marka kudeatzea.

Helburu zehatzak

- Gazte elkarteen azken albisteak ezagutu, baita gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izatea ere.
- EGKren azken albisten berri ematea.
- Gazte eragileen albisten eta agenda-deialdien berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak ematea.

ekintzak eta epeak

Sare sozialen kudeaketa urte osoan zehar egiten da.

Egunero:

- Monitorizazioa egin: zer esaten dute EGK-ri buruz?
- Informazio bilketa egin: zer gertatzen ari da gazteria eta parte-hartzearen arloan?
- Edukia eskaini: EGKren jarduerak, bestelako elkarteen deialdiak, gazteria-esparruko albisteak...

**Hilero:**

- Profilak berritu (profilaren argazkia etab.).
- Etengabeko ebaluazioa egin (bisita kopurua, elkarreragina, jarraitzaileen profila...).

Urtean behin:

- Webgunean berrikuntzak kudeatu (aldaketak eta aplikazio berriak aurreikusi).

Ekintzak

■ Sare sozialen kudeaketa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

Guztira, ia 5.760: 3.666 Facebooken eta 2.100 Twitterren, 2015eko otsailaren 2ko datuen arabera. Profilak: gazteak, gizarte arloko gaietan interesa duten bestelako norbanakoak, gizarte mugimenduak, Administrazioako gazteria zerbitzuak eta gazteria politikariak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Sare-sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko, hainbat tresna erabiltzen ditu komunikazio teknikariak: TweetStats eta SocialBro, bai eta Facebook, Twitter eta Instagram-en datu zuzenak ere.

Hauek dira jarraipena egiteko adierazleetako batzuk: irismena, inpresio kopurua, klik kopurua, elkarreragina, jarraitzaileen generoa, jarraitzaileen hizkuntza, autoritate-maila, erabilitako hashtag edo hitz gakoaren eragina...).

6.7 KOMUNIKABIDEEKIN HARREMANAK ETA KANPO KOMUNIKAZIOA**deskribapena**

EGKren ekintza zein EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapena egin.

- Prentsaurrekoak / prentsa-oharrak egin.
- Iritzi artikulak txertatu.
- Deialdiak egunkarietako agendan argitaratzea kudeatu.
- Elkarrizketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.
- Komunikabideen agerpenen txostenak egin.

helburuak

- EGKren jarduera eta iritziak, bai eta EGK-k parte hartzen duen plataforma eta ekimenen jarduera eta iritziak ere, hedabideen bitartez gizarteratu.



ekintzak eta epeak

- Aldian-aldiko prentsaurrekoak / prentsa-oharrak / manifestuak / komunikatuak (...).
- Protokoloen aktibazioa (lan-istripuak, gaztetxeen hustea...).
- Deialdiak agendatan txertatu.
- Iritzi artikuluak idatzi eta txertatu.
- Elkarrizketak lotu.
- Komunikatuak idatzi, zuzendu, bidali...
- Gaztezulo aldizkariko artikuluak kudeatu.
- ETB eta irrati publikoetako arduradunekin bileraren bat adostu lankidetzan aritzeko aukerak aztertzeke (urte hasieran).
- Kazetari eta hedabideen datu basea eguneratua mantendu.
- Gabonetan egiteko ekintza berriren bat planteatu (urte bukaeran).
- EGKren bideoetan marka bezala erabiltzeko kareta bat sortu (urte bukaeran).

Ekintzak

Komunikabideekin harremanak eta kanpo komunikazioa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Komunikabideetako irakurle/entzule/ikusleak
- EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk.
- EGK Internet bitartez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Kanpaina bakoitzak bere prentsa-txostena dauka eta banan-banakako ebaluazioa egiten da, honako irizpideen arabera: agerpen kopurua, agertutako komunikabideen gizarte-eragina, agerpenen edukiaren nolakotasuna eta argitaratutako informazioaren ahotsak (EGKren ahotsa, bestelako iturriak).

6.8 BARNE KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETA

deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan komunikazioa errazteko ardura du Komunikazio Arloak, bai teknikarien artean, bai teknikarien eta Batzorde Iraunkorren artean, bai eta Batzarra osatzen duten elkarteekin komunikazioa ere. EGKren barne-komunikazioak EGKren funtzionamendua eta eraginkortasuna bera baldintzatzen du.

helburuak

**Helburu orokorrak**

- EGKren baitako barne komunikazioa hobetu.

Helburu zehatzak

- EGK-ko arlo tekniko ezberdinen arteko komunikazioa erraztu.
- EGK-ko lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa indartu.
- EGK-ko Batzarra osatzen duten elkarteekin barne-komunikazioa hobetu.
- EGK-ko lantalde teknikoari eta Batzorde Iraunkorrari komunikazio-laguntza eman.

ekintzak eta epeak

- Urte osoan zehar hainbat lan egin behar ditu komunikazio arloak EGKren barne komunikazioa ahalik eta emaitza onenak ixteko.
- EGKren lanarekin zerikusia duten gaurkotasunezko albisteak bildu eta langileen artean banatu, baita Batzorde Iraunkorrari helarazi ere, aproposa denean.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak teknikariei eta Batzorde Iraunkorrari, EGKren inguruan esaten den guztiaren inguruan jakinaren gainean egon daitezen.
- Batzorde Iraunkorrek eta Batzarreko elkarteek EGKren jardunaren berri jasotzen dutela bermatu, EGKren tresnen bitartez (buletin digitalak, e-maila...).
- Teknikariei eta Batzorde Iraunkorrari komunikazio laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo ildoak...) eta teknikarien bisita txartelak eta sinadura digitalak berritu.

Ekintzak

- Barne komunikazioaren kudeaketa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZE	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

2014ko azken hiruhilekoan barne-komunikazioari buruzko diagnostiko-bilera egingo du Komunikazio Arloak Batzorde Iraunkorreko komunikazio arduradunekin batera. Era berean, Batzarra osatzen duten elkarteek bidaltzen dituzten iradokizun eta balorazioak jasoko ditu.



6.9 BESTE LAN ARLOEKIN KOORDINATZEN DIREN PROIEKTUAK

Komunikazio teknikariak estu lan egiten du EGK-ko beste teknikariek, bakoitzak dituen proiektuak komunikazioaren ikuspuntutik osatzeko, zabalpena egiteko eta difusioa eman behar diren ekintzak denboran antolatzeko egutegi baten arabera. Oso garrantzitsua da guztien arteko koordinazioa eta, hau lortzeko, komunikazio arlotik besteen urtean zehar besteek egingo duten jarduerak kontuan izan behar ditu. Hauek dira jarduerak arloka eta denboraren arabera ordenatuta (bakoitzaren xehetasun gehiago jakiteko, beste lan arloetara jo):

enplegua eta etxebizitza

- Prekarietatearen aurkako prebentzioa - Prekarioka aurkezpena (urtarrila).
- Enplegu lan taldearen errezeten zabalpena (apirila).
- Emantzipa... zer? lan taldearen deialdia egin (ekaina).
- SOSgazteak II ondorioen zabalpena (irailetik aurrera).
- Gazte Label marka sortzea (urte bukaeran).
- Teknikariaren lanpostuaren deialdiaren kudeaketa (urte bukaeran).
- Lan instripu eta gaztetxeen protokoloen jarraipena (urtean zehar).

hezkuntza

- Astialdi Foroaren bideoa (urtarrila-martxoa).
- Hezkuntza Foroaren deialdiaren bat kudeatu (otsaila-maiatzak)
- Astialdi Foroaren udako kanpaina (apirila-ekaina).
- Astialdi Foroaren ikastaroen kanpaina (ekaina-uztaila eta iraila-urria).
- Astialdi Foroko webguneari babesa eman (urtean zehar).

parte-hartzea

- Ikerketa kuantitatiboaren bideoa eta zabalpena (martxoa-ekaina, Behatokiaren arabera).
- GazteOlinpiadak. Hasieratik batzordean egon (martxoa-azaroa).
- Behatokiarekin batera egingo den ikastaroa (maiatzak 11, 12, 13 eta 14).
- Gazteok eta parte-hartze politikoa: Hauteskundeak (maiatzak 19?).
- Teknikariaren lanpostuaren deialdiaren kudeaketa (urtean zehar).

gasteizko parte-hartzea

- Udaleko batzordeetan parte-hartzea (urtarrila).
- Hiruburu berriak (urria-azaroa).

bakea eta bizikidetzak

- Bake-arte tailerrak (martxoa bukaeran).
- Herrietako formakuntzak eta Bake Ibilbideak (otsailean eskatu eta martxotik ekainera egiteko).
- Erreferentzia-funtsaren zabalpena (udatik aurrera).



- Bakeizketak (iraila).
- Bakea unibertsitateetan (urria).
- Gazte bake manifestua (udazkena).
- Gazte bakegintzaren dokumentala (urte bukaeran).
- Nazioarteko egunetan ere bakearen alde (urtean zehar).

berdintasuna

- Genero eta LGTB inguruan egiten den diagnostikoaren zabalpena (apirila bukaera-maiatza hasiera).

presidentzia

- 2015eko Batzarraren komunikazioaren kudeaketa (martxoaren 14aren inguruan).
- Presidentziarekin lotura duten beste hainbat ekintza: bilerak, topaketak, hitzaldiak, komunikabideekin harremanak... (urtean zehar).
- 30. urteurrena pentsatzen hasi (urtearen bigarren partean).

gai administratiboak

- EGKren egunerokotasunean sortzen diren lantxoek kudeaketa (urtean zehar).



7. PRESIDENTZIA

7.1 BATZORDE IRAUNKORRA

deskribapena

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGKko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkari osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

2015ean, legeak ezartzen duen moduan, Batzorde Iraunkor berria osatuko da. Batzorde Iraunkorreko kide berriek EGKren inguruan daukaten ezagutzan sakondu beharko dute, Batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu.

Bestalde, Presidenteak zubi lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira, txandakatuta. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da Batzorde Iraunkorrean eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziaz Batzorde Iraunkorra gai guztietan jakinaren gainean mantentzeko lana egingo du baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

helburuak

Orokorra:


- EGKri dagokion gaien inguruko erabakiak bideratu.

Zehatzak:

















- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.
- Ardura banaketa errespetatu.
- B.I.kideen parte hartzea sustatu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Batzorde Iraunkorraren bilerak
-  Lan Talde Teknikoarekin bilerak

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											



hartzaileak

- Batzorde Iraunkorreko kideak.
- Lan Talde Teknikoa.
- EGKko lan-talde eta elkarteak.
- Komunikabideak eta gizartea.

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Gizarte-oihartzuna.
- Elkarteen erantzuna.

7.2. LAN TALDE TEKNIKOAREN KOORDINAKETA

deskribapena

Lan Talde Teknikoa EGKko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero, eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezten guztiak eta koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bilatuko dira eta zubi lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Lan Talde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrenora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lan Talde Teknikoa hilabetean behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Horrez gain, gutxienez bi astetik behin, SKYPE bidezko bilera teknikoak egiten dira.

Aurten, hainbat teknikariren erreleboa dela eta, gutxienez 2 langileren aukeraketa prozesu aurreikusten dira, Presidentziatik koordinatuko direnak Batzorde Iraunkorraren laguntzaz.

helburuak

Orokorrak:

- Lan-taldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu.
- Zubi lana egin Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

- Lan Talde Teknikoaren bilerak



- Batzorde Iraunkorrek bilerak
- Aukeraketa prozesua
- Egunerokotasuna

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Lan Talde Teknikoko kideak
- Batzorde Iraunkorra
- EGK orokorrean

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Teknikarien arteko koordinazioa.
- Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko informazio trukaketa.
- Gatazka eza
- Kontratu berriak gauzatzea

7.3. BATZORDE EKONOMIKOA**deskribapena**

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGKko idazkariak (administrari-lana burutzen baitu), diruzainak eta presidentek osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarten kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2015eko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira. Honez gain, beharrezkoak izango diren gastuak baloratu eta onartuko dira.

Gainera, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatuko dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egingo da.

helburuak

**Orokorrak:**

- EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.
- Alor honetan unean-uneke erabakiak hartu.

Zehatzak:

- 2015eko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- Diru sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egin.
- Balantze ekonomikoa prestatu

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

- Batzorde Ekonomikoaren bilerak
- Aldundiekin bilerak
- Eusko Jaurlaritzarekin bilerak
- Batzar Nagusietako alderdiekin bilerak

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Aldundiak
- Eusko Jaurlaritza
- Batzar Nagusiak
- Batzorde Iraunkorra
- Lan Talde Teknikoa

ebaluaketa irizpideak

- Egoera ekonomikoa.
- Egindako bilerak eta hauen eraginkortasuna.
- Diru-sarrera eta gastuen arteko oreka.
- Hurrengo urterako aurreikuspena.



7.4. EGKko BATZAR OROKORRA

deskribapena

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan EGKko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria aurkezten zaie eta urte horretarako plangintza, onartu edota atzera bota daitezten. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean.

Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, baina presidentea da Batzarreko Mahaiko arduraduna eta Batzarra bera dinamizatzen duena.

helburuak

Helburu Orokorra:




- 2015eko Batzar Orokorraren koordinaketa eta dinamizazioa.

Zehatzak:










- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatu.
- Aldez aurretik elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Memoria eta plangintzaren prestaketa.
-  Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.
-  Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu.

Kronograma (hilaro)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

hartzaileak

- EGKko kide diren elkarteak.
- Batzorde Iraunkorra.

ebaluaketa irizpideak

- Batzarraren eraginkortasuna
- Elkarteen iritzia



7.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA

7.5.1. EUSKO JAURLARITZA

deskribapena

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.

Aurten, EGKren lana balioan jartzeko ahaleginean jarraituko da instituzio honi begira eta mahai interinstituzionala errepikatu dadin eta EGKk berriro bertan parte hartzeko ahalegina egingo da. Nabarmendu beharra dago 2014ean, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin harremana lortu dela: Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Hezkidetzaren Planarekin, Emakunderekin eta Etxebizitzaren zuzendaritzarekin. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2015ean elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

helburuak

Helburu Orokorrak:




- Elkarlanerako guneak identifikatu.
- Eragin politikoa izan.

Zehatzak:

- Zuzendaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatu.
- Mahai interinstituzionalean parte hartu.
- EGKren aurrekontua egonkortzeko-handitzeko lana egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Informazio trukaketa bilerak
-  EGKren lana balioan jartzea
-  Mahai interinstituzionala.

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak



- Eusko Jaurlaritza
- EGK
- Gazteak

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Lankidetzaren gune berrien sorrera.
- Aurrekontuaren eragina.

7.5.2. ALDUNDIAK

deskribapena

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen inguruan lan egiten da. Horretarako, 2015ean lurralde historiko bakoitzeko Foru administrazioarekin hitzarmen bat sinatzeko ahalegina egingo da.

helburuak

Orokorra:



- Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

Zehatzak:















- Hitzarmenak adostu.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Elkarlanerako guneen identifikazioa.
-  Aurrekontuaren inguruko lanketa.

Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											

hartzaileak



- Foru Aldundiak
- EGK

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna
- Bileren eraginkortasuna
- Lankidetzaren gune berrien sorrera
- Lankidetzaren eraginkortasuna
- Aurrekontuan eragina

7.5.3. EUSKO LEGEBILTZARRA

deskribapena

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGKk agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordurarte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen inguruan erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da. Aurten gainera, 2014ean Gazteen Lantaldea abian jarri zenez, parte hartze aktibo bat izateko ahalegina egingo da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren inguruko kezka nagusien inguruan hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuengatik.

helburuak

Orokorrak:



- Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

Zehatzak:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.
- Legebiltzarkideen agerpen-eskaera eta galderei erantzuna eman.
- Gazteen egoeraren berri eman instituzio eta gizarteari.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

-  Ohiko agerraldia
-  Agerraldi eskaerei erantzuna eman

**Kronograma (hilero)**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Legebiltzarreko alderdiak.
- Gizartea
- EGK

ebaluaketa irizpideak

- Agerraldien maiztasuna.
- Agerraldien kalitatea eta eragina.

7.5.4. BATZAR NAGUSIAK**deskribapena**

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken inguruko hausnarketa eta gazteen egoeraren inguruko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldien bitartez.

Horrez gain, hitzarmena sinatu aurretik, aurrekontu garaian, EGKk bere jardunaren berri ematen saiatzen da alderdi ezberdinekin bilduz.

helburuak**Helburu Orokorra:**

- Elkarlana sustatu.

Zehatzak:

- EGKren presentzia instituzioetan egonkortu.
- EGKren egitekoaren berri eman.
- Lurraldeko gazteriaren egoeraren berri eman.
- Hitzarmenak negoziatu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

- EGKren ordezkariak publikoak eta iritziaren plazaratzea.

**Kronograma (hilero)**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Batzar Nagusiak
- EGK
- Gizartea

ebaluaketa irizpideak

- Agerpenen maiztasuna eta eragina.
- Hitzarmenak lotzea.
- Komunikabideen erantzuna.

7.5.5. ALDERDI POLITIKOAK**deskribapena**

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du Alderdi Politikoekin. EAEko instituzio ezberdinetan (Jaurlaritza, Aldundi, Udal) alderdi politiko ezberdinak aurkitzen dira eta EGKren lana gazteria anitzari zuzenduta dagoenez, guztiekin harremana mantentzeko ahalegina egiten da.

Gainera, aipatu bezala, aurrekontuak edo agerraldiak direla medio, Legebiltzar eta Batzar Nagusietako alderdiekin etengabeko kontaktua egiten da.

Azkenik esan EGKren txosten, hausnarketa, informe eta dokumentu guztiak alderdi politiko guztiei bidaltzen zaizkiela, hauek egiten den lana eta diskurtsoaren berri izan dezaten eta euren bidez, ondorio horiek politika publikoetan eragina izan dezaten.

helburuak**Helburu orokorra:**

- Politika publikoetan eragitea.

Zehatzak:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

- EGKren ordezkartza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

**Kronograma (hilero)**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Alderdi politikoak
- Gizartea

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna eta eragina.

7.5.6. UDALAK**deskribapena**

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Orokorrean EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Horietarako, eratuta dauden esturkturretan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, harremana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.

helburuak**Helburu orokorra:**

- Politika publikoetan eragitea.

Zehatzak:

- EGKren lana eta ondorioak zabalitzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Gazteria politikei ekarpenak egitea.

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

- EGKren ordezkari-tza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

**Kronograma (hilero)**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Udalak
- EGKko elkarteak
- Gazteak
- Gizartea

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna eta eragina
- Hausnarketen sakontasuna
- Kolaborazio hitzarmenak sinatzea-berritzea

7.5.7. BESTE ERAKUNDEAK**deskribapena**

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragilere eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraia edukitzen da Presidentziatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Eskola Kontseilua, Drogomenpeketasunen Batzordea, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ...

Horiez gain, EGKk hainbat entitaterekin (EGK barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

helburuak**Helburu orokorrak:**

- EGKren ordezkariak egin.
- Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatu.
- EGKren hitza eta iritzia zabaltzea.

ekintzak eta epeak**Ekintzak (urte osoan zehar)**

EGKren ordezkariak publikoak eta iritzia plazaratzea.



Kronograma (hilero)

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK barruko eta kanpoko erakundeak.
- Gizartea.

ebaluaketa irizpideak

- Bileren maiztasuna.
- Harreman kopurua.
- Elkarlan kopurua eta eragina

7.5.8. IRUDI PUBLIKOA

deskribapena

EGKk izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGKk berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.

Hala, 2015ean zehar ere komunikabideetan, elkarrizketa eta prentsurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartuko da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

helburuak

Orokorrak:

- EGK publikoki ordezkatu.
- EGKren hitza eta iritzia gizarteratu.

Zehatzak:

- Elkarrizketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatu.
- EGKren publikazioetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak, elkarrizketak e.a. egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak (urte osoan zehar)

- EGKren ordezkartza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

**Kronograma (hilero)**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK barruko eta kanpoko erakundeak.
- Komunikabideak.
- Gizartea.

ebaluaketa irizpideak

- Agerpenen maiztasuna eta agerpenen eragina.
- Komunikabideen erantzuna.



8. ARLO EKONOMIKOA

8.1 2015 URTEKO AURREKONTUAREN INGURUKO AZALPENAK

Hasteko, aipatu beharra dago bere onesperako jarraian aurkezten dugun aurrekontua 2015rako plangintzan oinarrituta dagoela.

DIRUSARRERAK:

- EUSKO JAURLARITZA:

Sarrerei dagokionean aipatu, **Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Sailak** funtzionamendurako dirulaguntza eta inbertsioetarako dirulaguntza batean batu digula Horrela inbertsioetan kopuru finko bat ez dugu gastatu behar. Kopurua 198.000,00€

Une honetan **Eusko Jaurlaritzarekin (Lehendakaritza)** hitzarmen berri baten sinadura negoziatzen ari gara Euskadiko 2013-2016ko bake eta bizikidetzeta plana garatzeko gazteriaren jarduera –lerro espezifikoak partekatu, diseinatu, garatu eta gauzatzeko (65.000,00€).

- ALDUNDIAK:

Gaur egun, **Bizkaiko Foru Aldundiarekin** 2012-2015 urteetako hitzarmen bat sinatuta daukagu . Honen zenbatekoa 42.000 € izango da.

Bestealdetik, **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** urte honetarako hitzarmen bat sinatzeko gaude, Aurreikusita 27.000 € izango dira.

-UDALAK:

2014ko martxoan, **Gasteizko Udalarekin** hitzarmen bat sinatu genuen (2014rako 17.016,87€ eta 97,24€ 2015rako) **Udaleko gazte politiketan parte hartzeko prozesu bat** aurrera eramateko. Hitzarmen honen iraupena otsailaren 28an bukatu da. Une honetan beste hitzarmen bat negoziatzeko zain gaude.

- BEREZKO DIRUSARRERAK:

Kontseilukide diren elkarteen kuotei dagokion diru partidaren inguruan, aipatu beharra dago aurreikusitako kopurua gutxi gora beherakoa dela, ez baitago jakiterik zenbat elkartek ordainduko duten eta zenbatek ez.

Finantzaketa interesei dagokion atala, aurreikusitako kopurua gutxi gora beherakoa da, hori dirulaguntza jasotzen den epearen arabera izango delako. Gauzak horrela, gerta liteke momenturen batean EGK diru likidaziorik gabe geratzea.



Ikastaro, foro... bitartez jasotzen diren diru-sarrereri dagokionean, aipatu beharra dago kopuru horiek dieta moduan ordaintzen zaizkiola EGK-ri erakunde ezberdinik antolatutako zenbait Foroetan eta programetan parte hartzeagatik.

GASTUAK:

Egiturazko eta kudeaketa gastuei dagokionean, aurreikusitakoa gehienezkoa txikitu dela aipatu beharra dago.

Langilegoaren gastuei dagozkionean, EGK-ko Batzarrean onartutako berregituratzeko proposamena mantentzen da. Langile guztiek soldata talde bakarra eta lanaldi berbera (osoa) daukate. Kostuan desberdintasun bakarra antzitasuna da..

Jarduerei eta proiektuei dagozkion diru irteerez, gastu hauek berregituratu eta banandu egin direla 2015rako Lan Plangintza kontuan izanik.

**8.2 2015 URTEKO EGK-KO AURREKONTUA****2015rako EGK-ko AURREKONTUA**

DIRUSARRERAK		
EUSKO JAURLARITZA		263.000,00 €
Eusko Jaurlaritza. Zuzenekoa	198.000,00 €	
Eusko Jaurlaritza Lehendakaritza (Bakea)	65.000,00 €	
ALDUNDIAK		69.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia. Gazteria	42.000,00 €	
Gipuzkoako Foru Aldundia. Gazteria	27.000,00 €	
BEREZKO DIRUSARRERAK		11.641,98 €
Finantziar ondasunak	1.141,98 €	
Foroetan, kurtsoetan partehatzeagatik dirusarrerak	2.500,00 €	
2014ko kontseilukideen kuotak	5.000,00 €	
Eusko Jaurlaritza (Gazte txartelako publizitatea)	3.000,00 €	
GUZTIRA		343.641,98 €

GASTUAK	
1.- OROKORRAK	117.181,27 €
1.1. LANGILE OROKORRAK	90.431,55 €
Koordinazio Nagusia (Presidentzia)	38.092,44 €
28.879,80 € Soldata gordina	
9.212,64 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa	47.254,79 €
36.099,93 € Soldata gordina	
11.154,86 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Garbiketa Zerbitzua Bizkaia	5.084,32 €
3.799,95 € Soldata gordina	
1.284,37€ EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
1.2. EGITURA ETA KUDEAKETA	26.749,72 €
Garbiketa Zerbitzua Gipuzkoa	1.600,00 €
Garbiketa Zerbitzua Araba	1.224,72 €
Kopiagintzak	600,00 €
Bidalketak	125,00 €
Bulego materiala eta informatika	350,00 €
Teléfonoa eta interneta	4.500,00 €
Kononketak eta mantenua	4.600,00 €
Horniketak (ura, argia...)	6.000,00 €
Gestoretza	2.400,00 €
Bestelakorik	200,00 €
Langileen osasunaren zainketa	700,00 €
Batzorde Iraunkorra	1.500,00 €
Batzorde Teknikoa eta barne funtzionamendua	1.000,00 €
Harpidetzak	125,00 €
Entitate batzuetan parte hartzeko kuotak	400,00 €
EGK-ko Batzarrak	200,00 €
Batzorde Iraunkorreko aseguroa	1.000,00 €
Inbertsioak	225,00 €



2. LAN ARLOAK ETA PROIEKTUAK	226.460,71 €
2.1. KOMUNIKAZIOA	41.625,44 €
Komunikazio Teknikaria	27.125,44 €
18,418,17 € Soldata gordina	
8.707,27 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	14.500,00 €
Berriz berri	5.250,00 €
Web EGK	6.750,00 €
Twitter lehiaketa	200,00 €
Bideo Lehiaketa RECacciona: Hezkuntza	2.000,00 €
Komunikabideekin harremanak	300,00 €
2.2. ENPLEGUA ETA ETXEBIZITZA	42.098,58 €
Enplegu eta Etxebizitza Teknikaria	39.098,58 €
30.459,33 € Soldata gordina	
8.639,25 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	3.000,00 €
Gazteak eta Etxebizitza Emantzipa Zer?	500,00 €
Gazteen enplegurako politiken hausnarketa	100,00 €
Prekariatateare prebentzioa	2.300,00 €
SOS GAZTE II	50,00 €
Gazte Label Sello calidad políticas públicas	50,00 €
2.3. HEZKUNTZA	37.062,72 €
Hezkuntza Teknikaria	34.062,72 €
25,785,60 € Soldata gordina	
8.277,12 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	3.000,00 €
Astialdi Foroetako koordinazioa	300,00 €
Astialdietako ikastaroen kanpaina	350,00 €
Zabalpen ekintzak	600,00 €
Udako kanpaina	650,00 €
Astialdietako Eskolen geroa	100,00 €
Hezkuntza Formala	1.000,00 €
2.4. PARTEHARTZEA	39.673,97 €
Partehartze Teknikaria	35.673,97 €
27.396,85 € Soldata gordina	
8.277,12 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak	4.000,00 €
Gazte olinpidadak	2.000,00 €
Eztabaida politikoa	600,00 €
Ikerketa kuantitatiboa	800,00 €
Prestakuntza (Behatokia)	200,00 €
Material eta legen lagapena	100,00 €
Elkarreei aholkularitza	200,00 €
Erakunde publikoekin elkarlana	100,00 €



2.5 PAZ Y CONVIVENCIA	65.000,00 €
Técnica de Paz y Convivencia	35.062,72 €
26.785,60 € Soldata gordina	
8.277,12 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Técnico de Comunicación	
4.710,41 € Soldata gordina	6.937,28 €
2.226,87 € EGKk ordaindutako Gizarte Segurantzza	
Proiektuak:	23.000,00 €
Koordinazio orokorra	1.500,00 €
Formazioa eta bake ibilibideak herrietan	4.000,00 €
Erreferentzia Funtsa	6.000,00 €
Tailerra BAKEA&ARTE	1.500,00 €
Gazte bakegintzaren dokumentala I	5.000,00 €
Bakeizketak	1.500,00 €
Nazioarteko egunak	1.000,00 €
Bakea unibertsitatean	700,00 €
Gazte bake manifestua	1.500,00 €
Beste eragileek proposatutako ekintzak	300,00 €
2.6. BERDINTASUNA	1.000,00 €
Berdintasun diagnostikoa	1.000,00 €
GUZTIRA	343.641,98 €